

hh
hik hasi

Juanjo Falcóri elkarrizketa
Euskara eta kulturartekotasuna Zaldibian
Hizkuntza gutxituetako ikasmaterialgintza
Euskarabilduaren 11. jardunaldiak
Mendekotasuna(k)
Kokoak.eus
Samuel Rodriguez Etxeberria



HIZKETAN HASI EZINIK

Liburuetan bizi gara



LA BELLE
UXUE ALBERDI
BRUNO HIDALGO



MARRUBIZKO UDA
KARMELE MITXELENA
ALEX ORBE

AURKIBIDEA

GAIA / 8

HIZKETAN HASI EZINIK

Umeen hizketa berandutzen ari da eta horren arrazoia zein den arakatu nahian *Hizketan hasi ezinik* izeneko jardunaldiak antolatu zituen joan den azaroan **Hik Hasik**. Hizkuntza modu egokian garatzeko helduaren presentzia behar-beharrezkoa dela azpimarratu zuten adituek. Etxean eta eskolan estimula daiteke hizketa hainbat estrategia erabilia.

ELKARRIZKETA / 14

JUANJO FALCÓ

EH Bilduk hezkuntza konferentzia antolatu zuen pasa den abenduaren 6an Bilbon eta Kataluniako hezkuntza prozesuetan murgildutako hiru gonbidatu izan ziren bertan, tartean Juanjo Falcó Lleidako Udaleko alkatetzako aholkularia. Segregazioa eta udalen esku-hartzea izan ditu mintzagai nagusi **Hik Hasirekin** elkarrizketan.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2022-12-23).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Hizketan hasi eta jarraitu

8 GAI NAGUSIA

Hizketan hasi ezinik

14 ELKARRIZKETA

JUANJO FALCÓ

“Konpetentzia gainditu daiteke guztion ongizatearen ideia ikusaraziz”

20 ESPERIENTZIAK

Euskara eta kulturartekotasuna Zaldibian

24 EKARPENAK I

Hizkuntza gutxituetako ikasmaterialgintza solasgai

28 EKARPENAK II

Simona Levi (Euskarabildua): “Enpresa pribatuei libre uzten zaie hezkuntzako eremua”

32 EKARPENAK III

Nuria Mora: “Eskola publikoek eta itunduek partida arau berberekin jokatzeko lortu nahi dugu”

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Mendekotasuna(k)

36 GALDEIDAZU

Nola egin aurre ziberindarkeriari bikote nerabe eta gazteen artean?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Kokoak.eus' webjokoa

42 ATZEKO ATETIK

Samuel Rodriguez Etxeberria

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Politika Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana euskaraz



Hizketan hasi eta jarraitu

editoriala

UMEAK HIZKETAN HASI EZINIK SUMATZEN DIRA HELDUEK HAIKIN INTERAKZIO ETA KOMUNIKAZIO URRIA DUTELAKO. DENBORA ETA PRESENTZIA FALTA DA, ETA TXIKIEKIN BEZALA, HELDUEN ARTEAN ERE KOMENI DA.



Adituei entzuten ohituta gaude hezkuntzan, hainbat jardunaldi, hitzaldi eta formazio jasotzen baitugu prestakuntza osatu, berritu eta aberastu asmoz. Arituok eguneroko jardunean ikusten edo sumatzen ditugun hainbat joera datuetara ekartzen dituzte adituek eta ebidentzia zientifiko bihurtzen, dakiguna baieztatuz eta orokortuz. Beste batzuetan, datuek eta adierazpenek harritu egiten gaituzte eta zerbait berria deskubritzen dugu.

Halaxe gertatu da *Hizketan hasi ezinik* izeneko **Hik Hasiren** jardunaldietan. Haur txikiekin aritzen diren hezitzaile asko zerbait sumatzen hasiak daude eta estuasun moduko bat sortzen du egoerak: umeak hizketan hasi ezinik, zergatik ari da berandutzen hizketa, pantailen presentzia eta eragina, helduen eta umeen arteko interakzioa eta komunikazioa... Zer ote dago horren guztiaren azpian? Jardunaldiko adituak galdera horiei erantzuten aritu ziren eta ideia nagusian bat egiten dute: umearen eta helduaren arteko interakzioa ezinbestekoa da hizketa modu egokian garatzeko.

Baieztapen horren ondotik etorri zen hurrengo ebidentzia: haurrei eskaintzen dizkiegun

ahozko komunikazioa eta interakzioa gero eta urriagoak dira, eta presentzia gabezia hori dago arazoaren oinarrian. Behatzea, adi egotea eta behar duten denbora ematea ezinbestekoa dela ondorioztatu zuten.

Badago zer egina. Helduok haurrekin dugun interakzioaren eta komunikazioaren kalitatea hobetzea izan daiteke urte berrirako erronketako bat, presentzia erreminta nagusitzat harturik. Ez daitezela hizketan hasi ezinik geratu guk hitz egiten ez diegulako, guk begirutzen ez diegulako, gure erantzuna jaso gabe geratzen direlako edo gure begiradarik gabe geratzen direlako.

Eta txikiekin bezala koskorragoekin, gazteekin eta gainerako helduekin ere. Zer esango ote dute adituek helduen arteko komunikazioaz eta interakzioaz? Elkarri entzuteko daukagun gaitasunaz, gatazkak bideratzeko daukagun trebetasunaz eta enpatiaz? Euskal hezkuntzan bizi dugun une 'historikoa' ahaztu gabe eta 2023ari begira jarrita, nork bere buruari, familiari, erakundeari, ikastetxeari edo herriari jartzen dizkion erronketan eta desiretan, hausnarketa horrek ere beharko luke tokia, hizketan hasi ezinik gera ez gaitzezen, eta behin hasita, jarri dezagun.

Badira eskuin kutsuko eta ezker usteko sektoreak, ikastola kontzeptu modura, proiektu, erakunde eta mugimendu modura desagerrarazteko jokoan ari direnak"

Antton Izagirre

HILEKO IRUDIA





EAE-KO ESKOLA PUBLIKOETAKO LANGILEEK BI GREBA EGIN DITUZTE HEZKUNTZA LEGEAREN AURKA

Urtearen amaieran bi greba egin dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola publikoetako ehunka langilek ELA, LAB eta Steilas sindikatuek deituta. Azaroaren 30ean eta abenduaren 14an hiriburuetako kaleetan elkartu ziren hezkuntza “publikoa, euskalduna eta propioa” aldarrikatzeko eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Lege aurreproiektuaren aurka daudela adierazteko. Mobilizazioen helburua sindikatuek aurkeztu dituzten hamar aldarrikapenak Hezkuntza Legean eta behin betiko aurreproiektuan jasotzea da: publikoa ardatz izatea; segregazioari aurre egitea eta gizarte kohesioa bermatzea; publikazio-marko eta araudi orokor eta adostua ezartzea; hezkuntza lege propioa izatea; inbertsio eta baliabide nahikoa izatea; euskara erdigunean jartzea; betebeharrak eta kontrol mekanismo zehatzak finkatzea; hezkuntza sistema osatzen duten langile guztien enplegua eta lan baldintza egokiak bermatzea; merkatuen interesen gidaritzatik eta enpresa pribatuen negozio esparrutik at egotea; eta hezkuntza lege parte-hartzailea izatea.

Argazkia: Jaizki Fontaneda / Foku
Gasteizen, 2022ko abenduaren 14an



Gero eta gehiago dira azkenaldian umeen hizketa berandutzen ari dela esaten ari diren profesionalak eta kezka horrek bultzatuta 'Hizketan hasi ezinik' izenburuko jardunaldiak egin zituen **Hik Hasik** joan den azaroan. Jardunaldietan parte hartu zuten aditu guztiak bat etorri ziren: umearen eta helduaren arteko interakzioa ezinbestekoa da hizketa modu egokian garatzeko. Haurrei eskaintzen dizkiegun ahozko komunikazioa eta interakzioa gero eta urriagoak dira, eta presentzia gabezia hori dago arazoaren oinarrian. Berandutze horrek haurren hizketarako gaitasunean ondorioak izateaz gain, pentsamenduaren garapenean eta haurren garapen integralean ere ondorioak izan ditzake. Komunikazioa behar-beharrezkoa da jaiotzatik bertatik eta eskolan ere estimula daiteke hizketa hainbat estrategia erabilita. Behatzea, adi egotea eta behar duten denbora ematea ezinbestekoa da.

GAIA: HIZKETAN HASI EZINIK

Zergatik ari da berandutzen hizketa?

Umeak heldua ondoan behar du jaiotzen den momentutik. Eta komunikazioa jaiotzaren unetik bertatik sortzen da Cira Rodriguez, logopeda eta psikomotrizistak azaldu zuenez: “Bizipen komunikatibo horrek sortuko du gerora hizkuntza garatzeko beharrezkoa izango den lotura emozionala. Ahotsa da lehen kontaktua eta atxikimendu hori ezinbestekoa da gerora hizkuntza garatzeko”. Bizitzako lehen hilabeteetan komunikazioa egotea, hizkuntzarekin kontaktuan egotea, beharrezkoa da hizketaren garapenean arazorik izan ez dadin.

Junkal Gutierrez EHuko irakasle, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreorde eta Laslab ikerketa taldeko kideak azaldu zuen hizkuntza berezkoa dugun eta gizakiok partekatzen dugun gaitasuna dela. Gizaki guztiok erabiltzen dugu hizkuntza gure artean komunikatzeko eta gaitasun hori berezkoa dugun arren, kanpotik jasotzen dugunak berebiziko garrantzia du, hizkuntza ez baita bere kabuz garatzen. Hizkuntza garatzeko interakzioa beharrezkoa da. Nekane Galpar-

soro logopeda eta neuropsikologoak dioenez, kanpotik jasotzen den horrek, gainera, kalitatea eta maiztasuna behar ditu.

Etaparen aurrelinguistikoaren garrantzia azpimarratu zuten Rodriguezek eta Galparsorok. Etaparen aurrelinguistikoa umea hitzak ekoizten hasi aurrekoa da. Haurrek garai horretan negarra, irribarrea, keinuak... erabiltzen dituzte adierazteko eta besteekin komunikatzeko. Jaio eta aste batzuen buruan umea soinutxoak egiten hasiko da eta gerora, inguruan dituen gauzei esanahia ematen hasiko da. Bederatzi hilabetetik aurrera haurrak intentzio komunikatiboa duela azaldu zuen Galparsorok: keinuak egiten ditu, bokalizazioa hasten da, mugimenduak aldatzen dira... Hizkuntzarik ez dagoen arren, garai horretan jada komunikazioa, hartu-eman hori, landuko dugu eta bide horretan, egunerokotasunean egiten ditugun gauzei hitzak jartzea eta horiek etengabe errepikatzea oso garrantzitsua da. Rodriguez logopeda eta psikomotrizistaren esanetan, etapa aurrelinguistikorik gabe ez da ahozko hizkuntzarik sortuko.

Presentziaren garrantzia

Zer gertatzen da bestea ez dagoenean edo modu egokian ez dagoenean? Rodriguezek eman zuen galdera horren erantzuna: “Umeak kalitatea eta oreka emozionala behar ditu hazteko, eta haiekin pasatzen dugun denboraren kalitatea desagertzen ari da”. Galparsorok ideia bera azpimarratu zuen: presentziarik gabe ez dugu haurrek bidualitako seinalerik antzemango. Gaur egun, presentziari kentzen diogu pantailei begira pasatzen dugun denbora, modu horretan komunikaziorako aukerak galtzen ditugu eta komunikazio egoerak bermatzeak berebiziko garrantzia du. Komunikazioa heldua presente dagoelako eta heldu horrek umea esaten ari zaiona entzuten duelako gertatzen da. Eta entzute hori beharrezkoa da 0-3 etapatik aurrera ere, izan ere, haurrak imitatzailerak dira eta haien eredu izatea oso garrantzitsua da Galparsororen esanetan: “Umeak bestearen presentzia behar du eta beste horrek bidean laguntzeko duen moduak eragina izango du hizkuntzaren garapenean”. Kontuan izan behar dugu hizkuntzak autoerregulazioa laguntzen duela: bai kognitiboa eta baita emozionala ere.

Eta eskolan, zer?

Eskolan lan handia egin daiteke —eta egiten da—

hizketaren arloan. Eskolan irakaslearen presentzia oinarritzkoa da Rodriguezen hitzetan eta haren ustez irakasleak berak nola dagoen jakitea garrantzitsua da: “Ume batekin egoteko eta ume bati laguntzeko geu nola gauden jakin behar dugu. Geure buruari galdetu behar-ko genioke ikasgelan sartzen garen bakoitzean ea nola gauden ume horiekin interakzioa izateko. Izan gaitezen etikoak gure lanbidean”.

Horrez gain, irakasleek euren buruari zer-nolako profesionalak izan nahi duten galdetu behar diotela uste du Rodriguezek: “Hainbat gauza kuestionatu behar ditugu: nolako irakaslea izan nahi dut? Nolako umea eraikitzen lagundu nahi dut? Zer estrategia ditut horretarako? Formazioa ezinbestekoa da, bizi dugun kaos sozialaren erdian geure burua elikatu behar dugu tratatu onak oinarri izango dituzten eta harremanak harmoniaz garatuko diren espazioak izateko”.

Marijo Ezeizabarrena EHUko Letren fakultateko irakasle eta Elebilab ikerketa taldeko kideak irakasleen lana azpimarratu zuen. Etxetik euskara dakarten umeen garapena ez da inoren meritua baina etxetik euskaldunak ez diren haurren kasuan meritua eskolarena da haren ustez: “Ez dakit kontziente ote garen gure irakasleak egiten ari diren lanaz. Ume horiek garapen izugarria lortu



“Umeak hizketan hasi ezinaren arrazoiak asko izan daitezke, baina baliabideak eman behar dizkiegu. Gutxieneko hizkuntza baliabideak HH4n bermatu behar ditugu”

Marijo Ezeizabarrena, EHUko Letren fakultateko irakaslea eta Elebilab ikerketa taldeko kidea

GAIA: HIZKETAN HASI EZINIK

dute. Eskolan beren bizitzaren herena baino gutxiago pasatzen dute, euskara soilik eskolan erabiltzen dute eta horren emaitzak ikusgarriak dira”.

Higa tresnarekin egindako neurketetatik ateratako ondorioen berri eman zuen Ezeizabarrenak. 4 eta 8 urte arteko umeak aztertu zituzten: “Umeak hizketan hasi ezinaren arrazoiak asko izan daitezke, baina baliabideak eman behar dizkiegu. Gutxieneko hizkuntza baliabideak HH4n bermatu behar ditugu: gutxieneko hiztegia, gutxieneko gramatika... Neurketek balio izan digute LH2n oraindik erabiltzen ez dituzten oso oinarritzko zenbait gauza identifikatzeko. Horri buelta eman behar diogu zeren ezin dugu onartu maila horretan ume batek “dute” eta “ditu”-ren arteko zalantza izatea”.

“Oso garrantzitsua da eskolako minutu bakoitza aprobetxatzea eta ume bakoitzarekin hitz egiteko aukerak aprobetxatzea”, amaitu zuen Ezeizabarrenak.

Izan ere, hizketarik ez dagoen kasuetan, pentsamendua ezingo da egoki garatu eta gerora, irakurketa eta idazketa prozesuak ere zaildu egingo dira. Ahozko hizkuntza baitago irakurketaren oinarrian. Lehen urteetan asko egin liteke irakurketa-idazketa prozesua errazteko: kontzientzia fonologikoa hartzea, erritmoa hartzea, hitzekin jolastea eta hitzak ezagutzen hastea... Eskolak erronka handia duela azpimarratu zuen Galparsorok: “0-6 etapan ahozko hizkuntzak garrantzia handia du, baina ondoren idatzizkoa eta irakurketa menderatzea beharrezkoa da”.

Arazoak dauden kasuetan, lanketa talde osora zabaltzea proposatu zuen Galparsorok: “Haur baten hizkuntza garapena nolakoa izango den jakitea oso zaila da eta talde osoarekin zer egingo dugun erabaki behar dugu. Zailtasunak dituztenekin lantzen dugunak gainerakoei ere mesede egingo die. Gero ikusiko dugu zailtasunak dituzten horiekin zer gehiago egin behar dugun”. Zailtasunak dituzten haurrak arreta goiztiarrera bideratu beharra aipatu zuen ondoren: “Logopedekin lanketa egin behar dute. Eskolan, curriculumak markatutako helburuetara iristeko egokitzapenak beharko dituzte, hizkuntza baita eduki horiek jasotzeko tresna nagu-

sia. Alderdi emozionala ere kontuan izan behar dugu: batzuek frustrazioa kanporatzeko beharra izaten dute, edo tristura, edo gutxiago parte hartzen dute. Adi egon behar dugu. jolastokiko orduetan haien ondoan egotea eta babesa ematea garrantzitsua izango da”.

Arazoren bat edo zailtasunen bat duten umeak artatzeko itxaron zerrenda luzeak ikusita, kezka azaldu zuen Rodríguez: “Ume batek foniarekin hitzordua izateko urte eta erdiz itxoin behar duenean, adibidez, denbora asko joaten zaigu. Eta foniatrak ikusi ondoren, doan artatzeko beste urtebetez itxoin behar badu, litekeena da espezialistak ikusterako ume horrek 4 urte izatea. Arazoa handia da”.

Arreta goiztiarra baliatu duten umeen kasuan hobekuntzak sumatu izan dira hainbat kasutan eta badaezpada laguntzea oso garrantzitsua da. Zailtasunak antzeman bezain pronto hartu behar dira neurriak garaiz egindako esku-hartzeek arazo handiagoak ekidin ditzaketelako. Dena den, hizkuntzarekin gertatzen diren arazoak iraunkorrak direla, ez direla sendatzen azpimarratu zuen Galparsorok: “Lanketa espezifiko egin arren, aurrerapausoak oso motel egingo dituzte eta ahalegin handia egin beharko dute. Estimulazioa ez da nahikoa izango eta esku-hartze zehatzagoa egin beharko da”.

Hiru ume mota

Duten hizkuntza mailaren arabera, hiru ume mota bereizi zituen Galparsorok:

1. Hizkuntza maila egokia dutenak.
2. Hizketan izan zezaketen maila baino maila baxuagoa dutenak.
3. Hizkuntza maila baxua dutenak. Horiek atzerapena eta zailtasuna dute.

Hirugarren talde horretako haurrak atzemateko alarma pizten duten hainbat alderdi badira Galparsorok azaldu zuenez:

- 12 hilabeterekin lehen hitzak ez esatea.

“Umeak kalitatea eta oreka emozionala behar ditu hazteko, eta haiekin pasatzen dugun denboraren kalitatea desagertzen ari da”

Cira Rodríguez, logopeda eta psikomotrizista

GAIA: HIZKETAN HASI EZINIK ZERGATIK ARI DA BERANDUTZEN HIZKETA?

- 18-24 hilabete bitartean 10 hitz baino gutxiago esatea.
- 24 hilabeterekin familiarentzat ulergarriak diren 50 hitz baino gutxiago esatea edo bi hitzeko konbinazioak ez egitea.

Baldintza horiek beteko balira, hizketaren hasiera berantiarraz hitz egingo genuke. Hasiera berantiarra gertatzen den kasuetan, gerora haur horiek guztiek ez dute zertan zailtasunik izan. Izan ere, esku-hartze egokia eginez gero, 2 eta 3 urte artean ume horien erdiak baino gehiagok hobera egiten duela ikusten da. Estimulazio egokia jasotzen baldin badute, egoerari buelta ematen diote. 3 eta 4 urte artean, berriz, hobekuntza ez da hain nabarmena izaten: % 4k arazorik gabe egiten du aurrera. 5 urterekin, ostera, umeen % 7,4k lengoaiaren garapenaren nahasmendua du. Eta kasu horietan bai: horiek guztiek hizketaren hasiera berantiarra izan dute.

Gutierrezek beste datu bat eman zuen: 18 eta 24 hilabete bitartean hiztegiaren leherketa deitzen zaiona gertatzen da ume askorengan. Badirudi, haurra 150 hitz esatera iristen denean gertatzen dela eztanda hori eta bat-batean askoz hitz gehiago esatera, gehiago hitz egitera pasatzen da. Garai horretan, 18 eta 24 hilabete bitartean, bi hitzeko konbinaketak sortzen hasten dira eta denborak aurrera egin ahala, horiek gero eta konplexuagoak izango dira.



Dena den, kontuan izan behar dugu testuinguru berean dauden hurrek ere, garapen ezberdina izan dezaketela, eta bakoitzaren denbora eta erritmoak errespetatzea oso garrantzitsua da. Garapenaren estandarrak ezin ditugu zorrotz hartu: ume bakoitza bakarra da eta erritmo propioa du. Oso garrantzitsua da bakoitzari behar duen denbora ematea. Hala adierazi zuen Galparsorok: “Denbora eman behar diegu erantzunak eman ditzaten. Prosodia —tonuak eta doinua— indartu behar dugu, keinuak erabili behar ditugu eta hiztegia etengabe errepikatu behar dugu. Behatu egin behar dugu, adi egon”. Presentzia ezak kontrako efektua ere izan dezake, ordea: umeek hutsune hori betetzeko hitz-jario amaigabea izatea. Hala esan zuen Rodriguezek: “Kontuz ibili behar dugu oso isilak diren umeekin, askotan oharkabean pasatzen baitira. Baina hitz egiten ez duten umeek asko hitz egiten dutenek bezainbeste beldurtzen naute. Ume batzuek asko hitz egiten dute baina ez dago komunikazioz, bestearen presentzia falta betetzeko, hutsunea eta bakardadea betetzeko hitz egiten dute”.

Denon arteko lana

Gai honetan ere berebiziko garrantzia du eskola eta familia norabide berean joateak. Bide horretan, hezitzaileek laguntzaz gurasoak hizketa estimulatzeko trebatzea egokia izango litzatekeela aipatu zuen Galparsorok.

Rodriguezek ere eskolaren eta familiaren arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuen: “Azken urteetan gurasoekiko dependentzia handitu egin da, eta garapenaren etapa guztiak atzeratzen ari dira. Hezitzaileak gurasoei umeak ezertxo ere ez duela ulertzen esaten dienean ikusten dute guraso askok lehen aldiz arazo bat dagoela. Familiak eta eskolak eskutik helduta joan behar dute”.

Gaia borobiltzeko haxe esan zuen Rodriguezek: “Begira dezagun umeen lengoia. Begira diezaiegun gure lengoaiaren gabeziei eta gure presentzia gabeziari”. Gorputza eta burua, biak izan behar ditugu presente ume txikiekin ari garenean, gure presentziak, interakzio horrek, finkatuko baititu haien garapen egokirako beharrezkoak diren zutabe sendoak.

“Komunikatzeko gaitasuna berezkoa dugun arren, kanpotik jasotzen dugunak bereziko garrantzia du”

Junkal Gutierrez, EHUKo irakaslea, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea eta Laslab ikerketa taldeko kidea

Hizkuntza estimulatzeko estrategiak

Nekane Galparsorok hizkuntza estimulatzeko erabil ditzakegun hainbat estrategia eta tresna aipatu zituen:

Imitazioa. Haurrek hasieran ez dute gaitasunik egoki ahoskatzeko, baina guk erabiltzen dugun hiztegia erabil dezakete. Hitzak modu egokian esaten ez dituzten kasuetan, guk modu zuzenean errepikatzea izan liteke gakoa. Adibidez, “kasi-meta eman” esaten badigu ez diogu esango “ez da kasimeta esaten, kamiseta esaten da!”. Hitzak ongi esanda errepikatuko diogu, modu naturalean: “tori kamiseta”.

Hedapenak. Haurrak eman digun ideia hartzen dugu eta informazioa apur bat zabaltzen dugu. Haurrak esaten dituen gauzak jaso eta modu konplexuagoan esan ditzakegu: “Gosea. Udarea jan” esaten badu, esaldi konplexuagoa osatuko dugu: “Gose zara? Udarea jan nahi duzu?”. Berak “berokia jarri” esaten badu, guk “kalean hotza egiten du eta hori dela eta berokia jantziko dugu” esan diezaiokegu esandakoari informazioa gehituz.

Errepikapenak. Egiturak errepikatu ditzakegu, adibidez: “amak hartu du”, “aitak hartu du”... Keinuak ere garrantzitsuak dira. Gu zerbait esaten has gaitezke eta ondoren esaldi hori amaitzeko aukera eman diezaiokegu keinuen bidez.

Hizkuntza estimulatzeko **material ugari** dagoela esan zuen Galparsorok baina aldarrikatu nahi izan zuen ez direla beharrezkoak. Hala ere, **ipuinak eta abestiak** erabiltzearen aldekoa da: “Ipuina asko erabiltzen dugun baliabidea da, baina guk

egon behar dugu umeekin batera ipuina ikusten. Kontakizunak haien beharren arabera molda ditzakegu eta oso txikitatik erabil ditzakegu. Ahozkoak ere izan daitezke, euskarririk gabekoak. Garrantzitsua da protagonismoa eurei uztea ipuinak nola ikusi nahi dituzten eta nola entzun nahi dituzten erabakitzeko”. Abestiak ere hizkuntza bera eta hizkuntzaren egiturak barneratzeko oso egokiak dira.

Zailtasunak dituzten umeen kasuan material gehiago behar izaten dira. “Baina gainerakoekin ez dugu ezer berezirik behar, inguruan dugunarekin eta gure benetako presentziarekin nahikoa da”, esan zuen Galparsorok.



“Umeak bestearen presentzia behar du eta beste horrek bidea laguntzeko duen moduak eragina izango du hizkuntzaren garapenean”

Nekane Galparsoro, logopeda eta neuropsikologoa



“Ikastetxeen arteko
konpetentzia gainditu
daiteke guztion ongiaren
ideia ikusaraziz”

ELKARRIZKETA: JUANJO FALCÓ

LLEIDAKO UDALEKO ALKATETZAKO AHOLKULARIA

Une honetan Lleidako Udaleko alkatetzako aholkularia da Juanjo Falcó eta hezkuntzan ibilbide oparoa eginda iritsi da bertara. Bigarren Hezkuntzako irakasle gisa aritu da urte askotan, eta geletako lana bulegoetako zereginekin eta ardurekin osatu izan du. Generalitateko Hezkuntza Saileko kide izan zen 2004an, Kataluniako Hezkuntzako Itun Nazionalen parte hartu zuen eta baita LOEren negoziaketetan ere. Kataluniako

segregazioaren aurkako itunaren egileetako bat izan zen eta haren ondoren idatzi zen Ikasleen Onarpen Dekretuaren erredaktoreetako bat ere bai. Lleidako Udalak segregazioaren aurka ekitea lehentasuntzat du eta bultzatzaileetako bat da Falcó, herri ekitatiboagoa eta orekatuagoa lortzea xede dutelarik. EH Bilduk abenduaren 6an Bilbon antolatu zuen hezkuntza konferentzian hartu zuen parte.



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Akordioan eskola segregazioaren aurkako itun bat egitea adostu eta aurreikusi da. Katalunian gauza bera egin zenuten 2019an. Zer lortu nahi izan zenuten akordioarekin?

2018. urtean gobernu aldaketa egon zen, Esquerra Republicana de Catalunya hartu zuen Hezkuntza Sailaren ardura, eta legegintzaldi hartako hezkuntza programaren puntuetako bat eskola segregazioaren aurkako ituna bultzatzea izan zen. Sailaren eta Sindic de Greuges-en artean bultzatutako itunaren helburua hiru beharrei erantzutea zen. Hasteko, eskola segregazioari erantzun beharra zegoen. Hau da, eskola segregazioa egoera natural eta saihestezin gisa ez bizitzea lortu nahi zen, baizik eta injustizia sozial moduan onartzea eta horren inguruan kontsentsua lortzea. Aukera berdintasunari egiten zaion atentatu erradikala da eta ondorio negatiboak dituen ez hezkuntza sisteman soilik, gizarte osoan baizik. Eskola segregatu batek kohesiorik gabeko gizartea sortzen du. Eta gainera, hezkuntza sistema segregatua ez da sistema eraginkorra, oso garestia delako eta emaitza txarrak dituelako. Beraz, gure erronka kontsentsu bat lortzea zen, mundu

guztiak eskola segregazioa hezkuntza sistemaren arazo nagusitzat edo nagusienetakotzat har zezan.

Beste kontsentsu bat ere behar genuen: hezkuntza zentroak azpifinantzatuta daudela onartzea, publikoak zein itunpekoak, batez ere herritar zaurgarrienak jasotzen zituztenak eta dituztenak, horiek hezkuntza konplexutasun handiagoa dutelako eta sistemak ezartzen dituen ohiko bitartekoekin ez dutelako nahikoa.

Eta hirugarren beharra LEC Kataluniako Hezkuntza Legeak 2019an segregazioaren aurka ezarritako neurriak martxan jartzea zen. Legea onartu ondoren zentro-eskuineko gobernua jarri zen eta eskola segregazioa gehitu zuten neurriak hartu zituen, adibidez irakasleen lan baldintzak okertzea, zeinak eragin negatiboagoa izan zuen zonalde zaurgarrietan. Ondorioz, 2016ko egoera 2008koa baino okerragoa zen eta gure herrialdean eskola segregazioaren arazoa gurela onartzeko eta berau soluzionatu beharra geneukala onartzeko beharra geneukan.

Zer-nolako akordioa lortu zenuten? Zein dira, zure ustez, itunaren gako nagusiak?

Hezkuntzan eragina zuten eragile sozial guztiak mahai baten bueltan

elkartzen eta puntu askotarikoen inguruan eztabaidatzen hasi ginen. Urtebete edo urte eta erdi aritu ginen horretan eta azkenean bederatzi eremuko, 30 ekintza-planeko eta 189 neurriko ituna sinatu genuen.

Edonola ere, nire ustez hiru puntu nagusi ditu. Lehendabizikoa, eta niretzat garrantzitsua, guztiok ados jarri ginela ikasleen onarpen dekretu bat egin behar zela esatean, batez ere segregazio egoerari irtenbidea emateko, ikastetxeen finantziario urriari arreta jartzeko eta legeak segregazioari aurre egiteko planteatzen zituen neurriak martxan jartzeko.

Bigarren puntua edo alderdia finantziarioarena da. Hezkuntza sistema gaizki finantzatuta dagoela onartu genuen eta 2006ko LOE legean aurreikusita zegoen ekintza bat aurrera eramatea erabaki zen: eskola plaza batek zenbat balio duen jakiteko azterketa bat egitea. Eskola plaza batek zenbat balio duen jakin arte nekez jakin dezakegu zein gaizki finantzatuta dagoen hezkuntza sistema. Azterlana egin ondoren sistema publikoaren eta kontzertatuaren defizita zenbatekoa zen adostu genuen, eta oso elementu garrantzitsua izan zen onarpen dekretuaren gaineko adostasunera heltzeko.

Eta hirugarrenik —eta hau ere ele-

mentu garrantzitsua da— jarraipen eta ebaluazio sistema bat aurreikusi zen. Itunak ongi daude, kosta egiten da egitea, baina behin eginda, prozesua lideratzeko borondate irmorik ez baldin badago —kasu honetan Hezkuntza Sailaren aldetik— paper errea bihur daiteke.

Behin akordioa eginda, zein izan zen hurrengo urratsa?

Berriazko bizpahiru lantalde sortu ziren eta hori ere funtsezkoa eta oso garrantzitsua izan zen. Taldeek ez zuten dekretua idatzi, baina kontseilariari ituna helarazi zioten zer erabaki zuten eta zer egitea nahi zuten argi adieraziz. Ni neu lantalde horietan nengoen eta dekretua itunetik idatzi genuen, gauzak nola egin behar ziren erabakitzeke gutxieneke kontsentsu batera iristeko asmoz.

Prozesuaren emaitza Kataluniako Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeen hezkuntza eskaintzaren programazioaren eta ikasleen onarpen prozesuaren Dekretua izan zen, 2021. urtean. Dekretuaren zein alderdi nabarmenduko zenuke?

Niretzat, asko laburtuta, udalen rolean eragin handia duen alderdi bat dago: onarpenaren eta hezkuntza eskaintzaren programazioaren arkitektura instituzionala. Hau da, hezkuntzako eragile desberdinek programazioan eta onarpen prozesuan parte hartzeko organoak sortzen ditu.

Bestalde —eta niretzat alderdi hau ere oso aipagarria da—, ekitateari buruzko kapitulu bat dauka. Eskola segregazioa zer den, banaketa orekatua zer den eta hezkuntza premia bereziak zer diren definitzen du. Azken puntu hori iraultzailea iruditzen zait, ordura arte hezkuntza premia bereziko ikaslea egoera sozioekonomiko kaltegarrian zegoen eta hezkuntza laguntza behar zuen ikaslea zelako, eta Onarpen Dekretuaren ondoren definizioa aldatu egiten da: hezkuntza premia sozioekonomiko bereziak dituen ikaslea da bere hezkuntza baldintzei dagokienez desabantaila ekonomikoan dagoena, horrek bere eskola arrakasta arriskuan jartzen duelarik. Dekretuak gehitzen du po-

brezia egoerak edo pobrezia jasateko arriskuak ikaslearen eskola ibilbidea arriskuan jartzen duela. Eta hori hala da, ebidentzia zientifikoa da: pobrezia beste hezkuntza egoera batean jartzen ditu ikasleak pobrezian ez dauden ikasleekin alderatuta. Eta, beraz, pobrezia desberdintasun eragile bat da. Definizio aldaketa honek zenbakiak aldatzea ekarri du; lehen hezkuntza premia bereziak zituzten ikasleak 70.000 zenbatzen baldin baziren, gaur egun 225.000 dira.

Onarpen Dekretuan garrantzitsua den beste alderdi bat ere nabarmenduko nuke: hezkuntza programazioa kuantitatiboki eta kualitatiboki arautzen duela. Kuantitatiboki, orotara zenbat eskola plaza behar diren kalkulatzeko da ikasle bakoitzari plaza bana emateko, eta kualitatiboki —eta hau da berrikuntza— non jartzen diren plaza horiek. Izan ere, leku batean jartzen baldin badira segregazioa sor daiteke, eta beste leku batean jarrita ekitatea sor daiteke. Dekretuak programazioa nola egin behar den esaten du, ekitatera eta banaketa orekatura bideratuz. Taldeak kendu behar baldin badira, ongi arrazoitu behar da zergatik kentzen diren talde batzuk eta ez beste batzuk.

Dekretuak aurreikusten duena martxan jartzeko arkitektura instituzionala eraiki dela aipatu duzu. Zein dira arkitektura instituzionala horren atalak udaletan?

Hasteko, hezkuntza eskaintza programatzeko planifikazio mahaia sortu dira udaletan. Aurretik ere bazeuden, baina modu informalean, arautu gabe. Dekretuan zehaztu egiten da: 10.000 biztanle baino gehiagoko herri eta hirietan planifikazio mahaia izan behar dituzte. Gero beste kontu bat da mahaia zer indar eta lan egiten duen, proaktiboa den edo ez. Kontsulta organoak dira, eta Hezkuntza Sailaren eta udalaren artean planifikazioak egiteko eta erabakiak hartzeko guneak dira. Mahaien zereginak dira, besteak beste, hezkuntza eskaintza programatzea, hezkuntza zonaldeak zehaztea eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskuratzeko bideratzea.

“Eskola segregatuak kohesiorik gabeko gizartea sortzen du”

“Segregazioaren aurkako itunaren erronka kontsentsu bat lortzea zen, mundu guztiak eskola segregazioa hezkuntza sistemaren arazo nagusitzat edo nagusienetakotzat har zezan”

“Ados jarri ginen ikasleen onarpen dekretu bat egin behar zela esatean, segregazio egoerari irtenbidea emateko, ikastetxeen finantziazio urriari arreta jartzeko eta legeak planteatzen zituen neurriak martxan jartzeko”

“Ikasleen Onarpen Dekretuak hezkuntza programazioa kuantitatiboki eta kualitatiboki arautzen du”



Beste organo bat onarpena bermatzeko batzordeak edo eskolatzeko batzordeak dira. Udaleko ordezkari batek parte hartzen du batzorde horietan eta zeregin nagusia onarpen prozesuak eta matrikulak kudeatzea da. Dekretuak konpetentzia asko ematen dizkio matrikula biziaren kudeaketarako eta udaleko ordezkariak matrikula biziaren jarraipena egin dezake. Biziki inportantea da gestio hori. Lleidan, esate baterako, iazko ikasturtean 1.000 ikasle matrikulatu ziren ikasturten zehar.

Gero, udal bulegoak daude. Aurretik ere bazeuden, baina dekretuak egokitu eta indartu egin ditu, parte hartzeko borondatea duten udalek aukera izan dezaten familiak informatzeko eta laguntzeko. Bulegoak familientzat erreferentzia gune izan daitezten lortu nahi da, herrira iristen diren familiek bulegora jotzea informazio eta laguntza bila, eta ez ikastetxeetara. Ez da derrigorrezkoa udal bulegoak izatea, baina dekretuak erraztu egiten du bulegoak sortzea horretarako laguntza ekonomikoak eman.

Orain artekoek gain, programazioan parte hartzeko batzordea dago. Hemen udalak ez du parte hartzen,

jada planifikazio mahaian parte hartzen duelako. Batez ere ikastetxe pribatuetakoko patronalek eskaintzaren planifikazioaren gainean iritzia eman zezaten sortu ziren batzorde horiek.

Lleidan zer neurri zehatz jarri dituzuen martxan?

Lleida 140.000 biztanleko hiria da, Haur eta Lehen Hezkuntzako 44 zentro ditu eta Bigarren Hezkuntzako 24. Eskola mapa berrikusi dugu eta ondorioz, hiritik kanpo dagoen ikastetxe bat ixteko beharra ikusi dugu, ez baitu zentzurik hiritik 15-20 kilometrora dagoen eskaintza egiteak. Lleida erdigunean dagoen eskola segregatu batek bi eraikin ditu eta bat ixtea eta bestea indartzea erabaki dugu. Beste neurri bat jaitziera demografikoa baliatuz ratioak nola gutxituko ditugun erabakitzea izan da, ikastetxeak ixtea sailhesteko, gaitzeskaintza ekiditeko eta banaketa hobeto egiteko.

Herri mailako eskola segregazioa prebenitzeko ituna ere egin dugu, gure herriko ekitatea nola hobetuko dugun adosteko. Sozioekonomikoki hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak detektatzeko lan mardula egin dugu eta horri lotuta Ekitate

Puntua sortu dugu. Eskolatzeko bulegoetan bitarteko berezi batzuk bideratzen dira ikasturtean zehar datozen familiei informazioa eta bidelaguntza emateko eta sozioekonomikoki ikasle horien hezkuntza premia bereziak detektatzeko eta eskolatzeko orekatua bultzatzeko. Ekitate Puntua ezarritako lehendabiziko urtean matrikula bizian etorritako ikasleen % 60k zituen hezkuntza premia bereziak eta % 80ra iristen ari gara. Praktikan ikasturtean zehar iristen diren ikasle guztiak dira hezkuntza premia bereziak dituztenak. Eta hori identifikatzea oso garrantzitsua da, gero plazak erreserbatzeko.

Udalek zer laguntza ekonomiko jasotzen dute arkitektura instituzional hau sortzeko?

Dekretuak memoria ekonomiko bat du eta hor aurreikusten dira organo horiek sortzeko eta mantentzeko dirulaguntzak. Biztanle kopuruaren arabera dirulaguntzak daude eta udal handiek urtean 40.000 euro jasotzen dituzte. Hezkuntza Sailak berriki dirulaguntza bat sortu du mahaiak dituzten udalentzat. Halere, udalek ordaindu behar dituzte langileen gastuak edota espazioak bilatu. Ziur ez daudenek ez dute egiten.

Apustu politikoa ere bada, beraz.

Bai, alkateak nahi duen edo ez da gakoa, haren politikan lehentasuna duen edo ez eskola segregazioaren aurka egiteak. Lehentasuna baldin badu, gauzak egiten dira. Ez baldin badu, ez da mahairik sortuko, kostua baitu bi edo hiru pertsona hartzeak.

Udalak egin behar duen apustua da. Lleidan ERC udalera iritsi zenean lehentasunezko gaitzat hartu zen eta lana eginda egoera aldatzea lortu dugu. Egin behar dena egiten bada, emaitzak ikusten dira. Zeren segregazioa ez da zerbait naturala. Eskola segregazioa politika jakin batzuk aurrera eramatearen edo ez eramatearen ondorioa da.

Egin behar den hori egiteak, baitzuetan sozialki popularrak ez diren neurriak hartzea ekarriko du.

Oso garrantzitsua den kontu bat dago: udalak ekitatearen gaineko

diskurtso bat sortu behar du. Neurri horiek gaizki bizitzen dituen jendeak eskola jakin batean nahi izaten du plaza, normalean eskari handia duten zentroak izaten dira, eta plazarik ez dutela esaten zaienean edo hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat lau plaza erreserbatu direla esaten zaienean, eskubidea dutela diote eta gure diskurtsoa xenofobia eta klasista dela. Kosta egiten zaie gure neurriak onartzea, mobilizatzeko gaitasun handia dute eta mobilizatu egiten dira, udaletxe aurrean edo bulego aurrean manifestazioak antolatzen dituzte... Alkate batzuek presioa jasaten dute eta beste batzuek ez. Konbikzio osoa behar da. Oso argi baldin baduzu, ekitatearen eta guztion ongiaren gaineko diskurtsoa zabaltzeko behar duzu plaza kendu diezula esaten duen eta guztion ongia ikusten ez duen jendearen artean.

Non geratzen da guraso batzuek aldarrikatzen duten aukeratzeko eskubidea?

Aukeratzeko eskubidea ez da eskubide absolutua. Gure legeak ongi laburbiltzen du: Sailak egiten duen eskaintzaren arabera zure lehentasuna adierazteko eskubidea da aukeratzeko eskubidea. Dagoen eskaintzaren arabera, niri nora joatea gustatuko litzaidakeen, baldin eta lekuri baldin badago. Nahikoa lekuri ez baldin badago, baremoa aplikatzen da eta egokitzen zaionari egokitzen zaio. Lekua baldin badago, inork ezin dizu esan ez joateko.

Ikastetxea hautatzeko eskubide absolutua ez da existitzen. Eta hori da alderdirik gatazkatsuena. Zenbat eta gehiago zabaltzeko ikastetxearen aukeraketa, orduan eta segregazio gehiago sortzen da. Eskaintza eta eskaria bat etorri behar dira.

Nolakoa da ikastetxeen arteko harremana Katalunian? Ezer aldatu al du dekretuak?

Katalunian ikastetxeen artean konpetentzia gogorra egon da; kontzertatuaren euren artekoa, publikoen euren artekoa eta kontzertatuaren eta publikoen artekoa. Zergatik? Denak matrikularen ehizara zihoazelako.

Kontzertatuari matrikula gehiago edukitzeak kontzertua mantentzea dakarkiolako eta publikoari matrikula gehiago edukitzeak plantilla gehiago edukitzea dakarkiolako. Ondorioz, konpetentzia handia zegoen.

Nola gainditu daiteke konpetentzia?

Pedagogia asko eginez. Ikastetxeei guztion ongiaren ideia ikusaraziz. Konpetentziak segregazioa dakarrela ikusaraziz, eta segregazioa herriarentzat eta herrialdearentzat txarra dela jabeaziz. Zuzendaritzetan hori guztia aurrera eramateko buruz ongi jantzitako jendea baldin badago, ez dago ezer esplikatuko beharrik.

Esate baterako, udalen ardura da matrikulazio kanpainak egitea. Udal batzuek ikastetxean jartzen dute indarra eta horrek presioa sortzen du. Aldiz, gure udalean, Lleidan, matrikulazio kanpainak auzoetan oinarritzen dira. Karteletan “eraman ezazu zure haurra auzoko eskolara” jartzen dugu.

Udalen rola oso inportantea da. Lan asko egin behar da. Badago udalentsat beste erronka bat ere: hezkuntza proiektuak berdintzea. LECek autonomiaren eta hezkuntza proiektuen aldeko apustua egiten du eta ongi dago. Baina badu bere arriskua ere: hezkuntza proiektuen arteko berdintasunik ez baldin bada sortzen, segregazioa sor lezake. Beraz, udalen zeregina izango litzateke bitartekoak eskaintzea hezkuntza proiektu desberdinak egon arren gutxieneko batzuk bermatuta egon daitezen. Alegia, aukera berdintasuna bermatuta egon dadin hezkuntza proiektua edozein delarik ere.

Zer dio dekretuak eskolaz kanpoko jardueren gainean? Udalek paper garrantzitsua izan dezakete arlo horretan ere.

Bai, zalanztarik gabe. Eskola barruan desberdintasunak sortzen ari dira, baina eskolaz kanpo gehiago. Normalean eskolaz kanpoko jardueretara joateko aukera gehiago izaten dute ordaindu dezaketen familietako umeek. Beraz, udalek aukera berdintasuna bermatzen ahalegindu behar dute eta dekretuan horri buruzko kapitulu bat dago.

“Udal bulegoak familientzat informazio eta bidelaguntza gune izatea lortu nahi da, herrira iristean hara jotzea, eta ez ikastetxeetara”

“Eskola segregazioa politika jakin batzuk aurrera eramatearen edo ez eramatearen ondorioa da”

“Ekitatearen eta guztion ongiaren gaineko diskurtso bat zabaltzeko behar da”

“Ikastetxea aukeratzeko eskubidea ez da eskubide absolutua”

“Udalen zeregina izango litzateke hezkuntza proiektu desberdinak egon arren gutxieneko batzuk bermatuta egotea”

ESPERIENTZIAK

EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA

Euskara ardatz, elkarbizitza helburu

Zaldibian (Gipuzkoa) euskararen erabilerari eutsiz jatorri ugaritako familien arteko elkarbizitza zaintzeko prozesua egiten ari dira Lardizabal herri eskolan, Huhezirekin eta Uemarekin elkarlanean. Euskara eta kulturartetakosuna zainduz, udalerri euskaldunetako hezkuntza komunitateetan eragiteko prozedurak ezarri dituzte Zaldibian.

Nola uztartu eskola-komunitateko familia guztiek eskolan parte hartzea eta, aldi berean, euskara babestea? Nola uztartu euskaraz bizitzaren jarraitzea eta familia guztiek informazioa jasotzea, elkarrekin komunikatzeko aukera izatea eta parte hartzeko aukerak edukitzea? Zaldibiako Lardizabal herri eskolan korapilo hori zeukaten, “urtero errepikatzen zen korapilo bat zen, gero eta handiagoa egiten ari zena”, adierazi zuen Eider Amundarain eskolako zuzendaria, abenduaren 2an Huheziren Eskoariatzako kanpusean egindako *Euskara eta kulturartetakotasuna udalerri euskaldunetako hezkuntza-komunitateetan. Zaldibiako esperientzia* jardunaldian. Arazoak konponbide “magiko eta sinplea” izango zuela espero zuen eskolako zuzendaritzak, baina berehala ohartu ziren halakorik ez dagoela. Bidea da konponbidea: “Bilera bat deitu genuen, eta guraso askok parte hartu zuten, korapilo hori askatzeko gogo handia zegoela ikusi genuen eta lanean hasi ginen”.

Euskara ardatz izango duen el-

karbizitza testuinguru bat bilatzeko konponbide magikorik eta sinplerik ez zegoela ikusirik, agente asko elkartu dira Zaldibian, eta euskara eta kulturartetakotasuna lantzeko prozesu aitzindaria jarri dute martxan. Jendaurrean aurkeztu zituzten orain arteko emaitzak Huhezin. Eskolako zuzendaritzak (Amundarain zuzendaria bereziki) zein AUSA Gaztelu Guraso Elkarteak parte hartu dute prozesuan, baita hainbat familiak ere, autoktonoek zein migrariak. Adituen laguntza ere izan dute, hala nola Huhezirena (Karmele Perez eta Amelia Barquin ikerlari eta irakasleena) eta Uemarena. Udalak (Ez-titxu Mujika alkateak) eta etorkinei harrera egin eta herritarren arteko harremanak sustatzen diharduen Etxekonekok elkarteak ere prozesuan parte hartzen dute.

Zaldibiako ezaugarriak

Zaldibia izatez herri euskalduna da, euskararen arnasmune bat, eta hala izateko borondatea dute herritar gehienek. 1.600 biztanle inguru ditu eta ikastetxe bakarra dauka herriak: Lardizabal herri eskola. Uema Uda-

lerri euskaldunen mankomunitateko kide da Zaldibia. Haatik, azken urteetan herriaren egoera soziolinguistikoa aldatzen ari da aldaketa demografikoaren ondorioz, migratzaile asko etorri dira herrira euskara ez den beste hizkuntza batzuekin, nagusiki Marokotik, Errumaniatik eta Pakistandik. Zaldibiaren egoera nahiko berezi egiten duen ezaugarria da etorkinek euskara ez ezagutzeaz gain, gaztelania bera ere ez dutela ezagutzen etorri orduko, eta are gutxiago eskolako haurrek. Goierri eskualdeko herri txikien artean etorkin gehien hartu duen herria da Zaldibia, eta populazioaren ia % 15ak beste herrialde bateko nazionalitatea dauka, 2021eko datuen arabera.

Testuinguru horretan, korapiloa sortzen hasi zen euskara ez jakiteagatik hainbat familia eskola-komunitateko bizitzatik kanpo gelditzen hasi zirenean, hala bileretara joateari utzi ziotenean, nola merendolen berri ez zutenean... Beraz, bi planotan eragin behar zuten, eguneroko ekintza txikietan zein plano teorikoagoan.



Eñaut Agirre, Zineb El Ghautoi, Felicia Toma eta Amaia Sasiain, prozesuan parte hartu duten lau guraso. Arg.: Huhezi.

2020an ekin zioten bideari. Hasteko, bi lan-talde eratu zituzten prozesua aurrera eramateko:

1. Talde eragilea: (talde operatiboa). Ikastetxeko zuzendaria eta irakasleez gain, Huheziko bi irakasle, Udaleko ordezkaria, guraso elkarteko ordezkaria, Etxekonekok elkarteko ordezkaria eta Uemako ordezkaria elkartzen ziren taldean. Baina osaera baino gehiago, izaera nabarmendu zuen Barquinek: “Talde honen atzean aktibismoa eta militantzia dago”. Egitekoa hau izan zuen; prozesuak definitzea, proposatzea, gidatzea eta koordinatzea. “Ez dute parte hartu ordezkari zirelako baizik eta gaian interesa zutelako”.
2. Talde hedatua edo zabala. 15 kidek osatzen dute eta kontraste-lana egin dute. Talde eragilearen proposamenak kontrastatzea, aztertzea etaosatzea da bere egitekoa.

Ondoren, eskolako testuinguruko egoera komunikatiboak azertu zituzten eta eragin handia duten

aldaketa txikiak egiten hasi ziren. Guraso bileretatik hasi ziren, “korapiloa” une horietan nabarmentzen baitzen: guraso guztiek bilera berdinetan parte hartu ahal izateko, adibidez, xuxurlari lanak sustatu zituzten. Gasteizko Errekaleor auzoko esperientzia ezagututa, haiek bezala, Telegram kanalaren bidez hasi ziren euskaratik gaztelaniara itzulpenak egiten. Xuxurlariaren itzulpena arikularren bidez entzuten dute ordutik hala behar duten gurasoek, baina guraso guztiak gela berean biltzen direlarik. Era berean, gurasoen telefonozko mezu bidezko komunikazioak Whatsapetik Telegram kanalera pasatu zituzten, kanal libre horrek euskara batuan idatziz gero, behar dugun hizkuntzara itzulpen zuzena egiteko aukera eskaintzen baitu unean-unean, gaztelaniatik pasa beharrik gabe.

Beste urrats batzuk ez dira hain zehatzak, teorikoagoak baizik, baina beharrezkoak: “Ikusi genuen garrantzitsua dela gurasoekin eta irakasleekin irizpide soziolinguistikoko batzuk partekatzea”, azaldu zuen Barquinek. Familia etorkin batzuek,

“Ikusi genuen garrantzitsua dela irizpide soziolinguistikoko batzuk partekatzea gurasoekin eta irakasleekin”

Amelia Barquin (Huhezi)

ESPERIENTZIAK: EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA

“Ulertu nuen ez ginela mehatxua, baizik eta konponbide bat bilatu behar zela euskaraz ez zekiten gurasoekin komunikatzeko”

**Zineb El ghaouti
(Zaldibiako gurasoa)**

diglosiaren berri izan gabe eta azalpenik jaso ezean, ez dute ulertzen zergatik ez diren bilerak gaztelaniaz egiten “guztiok baldin badakigu”. “Azaldu egin behar zaie zein den gure hizkuntzaren egoera”, adierazi zuen Barquinek, “eta behin egoeraren berri izanda, ondoren, oinarriak partekatu egin behar dira. Zergatik da garrantzitsua euskaraz bizitzea? Oinarriak konpartituak izan behar dira euskaldunon eta euskaldunak ez direnen artean”.

Marko bat ezarri eta prozesuan parte hartuko duten guztiek berau partekatzea funtsezkotzat dute Huheziko adituek. “Lehenengo markoa edo ikuspegia konpartitu behar dugu, eta horren gainean egingo ditugu ekintza txikiak. Ekintza handietan pentsatzea oso zaila da eta jaitsi eta elkarrekin adostu behar ditugu urratsak. Baina, lehendabizi, begirada konpartitu behar da”. Besteak beste, honelako argudioak erabili zituzten familia guztien ulermeneari eragiteko:

- Euskara hizkuntza minorizatua da eta jakinarazi behar da normalizazio prozesuan dagoela. Azaldu egin behar da ofiziala dela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta Nafarroako “eremu euskaldunean”.
- Euskara ezagutzen ez dutenek jakin behar dute euskararen etorkizuna ez dagoela bermatua.
- Azaldu egin behar da erabileran dagoela gakoa; ezagutza ez da aski eta erabilera hori da suspertu behar dena. “Esan egin behar zaie gauza guztiak euskaraz egiten tematzea ez dela kapritxoa”.
- Euskarak euskal elebidunak behar ditu.
- Arnasgune izatea zer den azaldu egin behar da.

Motibazioa, enpatia eta komunikazioa

Motibazioaz gain, prozesua egiteko hitz gakoa *enpatia* izan dela adierazi zuen Barquinek, eta, era berean, pedagogia egiteko premia ere nabarmendu zuen irakasleak: “Guztiei azaldu behar zaie aldaketak egongo direla eta zergatik egingo diren aldaketa horiek”.

Komunikazioa ere funtsezkoa izan da, eta asko zaindu dute prozesuan zehar. Talde eragileak eman du ibilbidearen berri, uneoro, eskola barruan zein kanpoan, eskolako komunitateari zein herri osoari. “Egiten ari ginen urratsen berri emateko, eskolako zuzendariak idazten zuen eta Udaletik albisteak zabaltzen ziren: bileraren argazkiak eta informazioa zabaltzen zuten”. Alkateak adierazi zuenez, lehen unetik ikusi zuen Udalak prozesua eskolaren eskutik egin behar zuela. “Zer gutxiago! Udalaren jarrera, hasieratik, elkarrekin joatearena izan da. Etorkinen egiten zaien harrekan, ematen zaien informazioan... hezkuntza komunitatea eta Udalak ezin dituzte bide desberdinak egin. Bideari garrantzia ematen diogu, prozesua ez da perfektua, baina zergatia ongi azaltzea oso garrantzitsua da”.



Huheziko jardunaldia egin zuten gaiaz, abendauren 2an. Argazkian, unibertsitateko Karmele Perez, Uemako Garikoitz Goikoetxea, Lardizabal eskolako zuzendaria Eider Amundarain, Mari Karmen Irastorza Etxekonek elkartekoa eta Zaldibiako alkate Eztitxu Mujika. Arg.: Huhezi.

Inplikazioa da beste hitz gako bat. Prozesua emaitzak ematen ari baldin bada, talde eragilearen “inplikazioagatik eta lan itzelagatik” izan dela adierazi zuen Barquinek: “Ez dago konponbide perfektutik, hori izan da hasieratik gure izpiritua, baina probatzeko prest geunden eta beldurrik gabe ekin diogu bideari eta horrek emaitzak eman ditu. Zaldibian ausardia egon da: ‘goazen probatzera orain arte egin ez diren gauzak’”.

Bidean ikasitakoak

Balorazioa positiboa izan da kolektibo guztietan, bai zuzendaritzarentzat, bai guraso autoktonoentzat zein etorri berrientzat, Etxekonekok elkar-tearentzat, Uemarentzat eta Udalarentzat. Bidea oraindik luzea bada ere, dagoeneko zerrendatu dituzte ikasitako lezio batzuk, Barquinek laburbildu zuenez:

- Eragile inplikatuak behar dira. Ordezkaritzagatik baino gehiago, parte hartzaileen inplikazio handiarekin egin da bidea. Eskola komunitateaz gain, Uema ere asko inplikatu da prozesuan eta berau finantzatzeko bideak bilatu zituen, era horretan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantziazioa eman zuen prozesua aurrera eramateko.
- Giroa zaintzea oso inportantea da.
- Telegram kanala oso erabilgarria izan da, eta doakoa da.
- Prozesuari berari eman behar zaio garrantzia, formatuari baino gehiago. Eta unean-unean aztertu eta egokitu behar da zerk funtzionatzen duen eta zerk ez.
- Talde eragilean guraso etorkinak egon behar dira, nahiz eta oso erraza ez izan. “Puntu hori oso garrantzitsua da —nabarmendu zuen solasladian Barquinek—, eta guraso elkar-teak ere egon behar dira. Gai hau ezin dugu garatu *bera-ientzat*, baizik eta *elkarrekin* egin behar dugu. Normalkuntza *herri-arentzat*, *ikasleentzat*... egitetik, *-kin* egitera pasa behar dugu, elkarrekin”.

“Bazen garaia!”

Zineb El Ghautoi El-Gharradik jatorri arabiarra du, 15 urterekin etorri zen Euskal Herrira eta gaur egun Lardizabal ikastetxeko gurasoa da. Aspaldian sentitzen zuen korapiloari konponbidea bilatzeko beharra. “Bazen garaia” zioen, elkarbizitzako bilerak abiatu zituztenean. “Gonbidatu gintuztenean, ikusten nuen kezka zutela euskararen harira, baina sentitu nuen gu mehatxua ginela. Nire ustez guztiz kontrakoa da. Euskal Herrikoak ez garenok euskara ikasiz gero, euskara zabaltzen lagundu dezakegu”. Bera da horren adibide, euskara ulertzeko gai da eta euskaltegian ari da bertako hizkuntza ikasten, neurri handi batean, prozesu honek eraginda: “Nahiz eta beste hizkuntza bat hitz egin, errespetua diogu euskarari”.

Bileretan parte hartzea eta egoeraren berri izatea garrantzitsua izan da El Ghautoiarentzat, lehenik ikuspegia aldatzeko: “Ulertu nuen ez ginela mehatxua, baizik eta konponbide bat bilatu behar zela euskaraz ez zekiten gurasoei komunikatzeko”. Horrez gain, baliabideak eta hizkuntza politika egokiak aldarrikatu zituen, Euskal Herrira etorri zenean eskolaratze garaian bazegoen ere artean, ez baitzuen euskara ikasteko aukerarik izan, eta aldiz, gaztelan arakoa ateak ireki zizkioten: “Zer egiten da kanpotik datorren jendea euskara ikastea errazteko? Nirekin nahastu egin dira: ni euskaraz hitz egiten egon nintekeen oraintxe, arazorik gabe”.

Eñaut Agirre izan da prozesuan parte hartu duen gurasoetako bat. Komunikazioak izan duen garrantzia nabarmendu zuen Agirrek, prozesuak aurrera egin badu elkar zaindu eta elkar entzun dutelako izan dela irizten dio, besteen lekuan jarritz: “Arazo bat ikusten denean, hitz egin behar da; prest egon behar dugu gure lekutik pixka bat mugitzeko”. Elkarbizitzaren alde eta euskarak “guztien beharra” duelako inplikatu zen Agirre prozesuan. Guraso guztientzat egoera ez zen berdina, Agirre jabetzen zen euskaldunentzat erosoagoa zela: “Oso erraza

zen euskalduna izanda eskolan funtzionatzea”. Hasierako erosotasunetik mugitu eta kontzesioak egin beharra izan dituzte prozesuan, eta Agirrek aitortu zuen ez dela guztientzako erraza izan: “Hasieratik argi ikusi genuen: hemen denok jan beharko dugu zaporen bat. Jarrera naturalak badakigu zein diren: bi pertsonak hizkuntza bera badakite hizkuntza horretan hitz egitea. Kasu honetan lortzen ari gara batzuetan euskaraz ulertzen dutenek erdaraz hitz egitea eta beraiei euskaraz hitz egitea. Hori naturalizatzea lortu da”. Bat egiten du Agirreren ikuspegiarekin Amaia Sasiain gurasoak: “Txip aldaketa lortu dugu denongan, kanpotik etorri direnengan eta gudan. Denok daukagu zerbait galdu beharra denok hobeto sentitzeko”.

Felicia Tomak, jatorri errumaniarreko gurasoak, ezinegonetik eta haserretik abiatu zuen prozesua: “Ez zen bidezkoa: eskolako bizi-tzan parte hartu nahi nuen, baina ezin nuen”. Bidean aurrera egin da, ahaleginak merezi izan duela ikusten du: “Lehenengo bilera lau ordukoa izan zen. Kaskoei entzuten ari nintzela pentsatzen nuen ‘ez da inoiz amaituko!’, baina merezi izan du. Bada emaitza bat eta ongi sentitzen naiz, zoriontsu bileretara joateko eta parte hartzeko aukera dudalako. Umeek galdetzen didatenean ‘joango zara bilerara?’, baietz erantzuten diet, pozarren”.

Beste bost herritan

Zaldibiako prozesuak bide bat ireki dio Uemari hainbat herritan baitute antzeko egoera, Garikoitz Goikoe-txea Uemako kideak adierazi zuenez: “Testuinguru erdaldunagoetan komunitatean guraso erdaldunak edukitzea ez da gauza berria, baina, Zaldibia eta gisako herrietan alderantzizkoa ari da gertatzen, gero eta guraso gehiago daude euskaraz ez dakitenak, eta arazoa sortzen ari da euskaraz bizitzeko eskubidea eta bizikidetzeta nola uztartu”. Bide berriak urratzen ari dira beste bost herritan: Aizarnazabal, Ibarra eta Zestoa (Gipuzkoa), Leitza (Nafarroa) eta Ondarroa (Bizkaia).

EKARPENAK I

IKASMATERIALGINTZA HIZKUNTZA GUTXITUETAN

Hizkuntza gutxituetako ikasmaterialgintza solasgai

Ikas euskal pedagogia zerbitzuak hizkuntza gutxituetako ikasmaterialgintzaz hitz egiteko solasaldia antolatu zuen iazko udazkenean Baionan, Ikasen 25. urteurrena aitzakiatzat hartuta. Bretainiako, Okzitaniako, Korsikako eta Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa, argitalpen politikak eta jokagaiak izan zituzten hizpide argitaletxeetako ordezkariak eta erakunde publikoetako ordezkariak. Guztiek azpimarratu zuten hizkuntza gutxituetan sortutako materialen garrantzia eta beharra.



Ezkerretik eskuinera solasaldiko parte-hartzaileak: Pantxika Maitia aurkezlea, Jean Baptiste Paoli (Korsika), Delphine Le Bras (Bretainia), Aines Dufau (Ipar Euskal Herria) eta Herve Coture (Okzitania).

Hizkuntza gutxituen egoera antzekoa da Bretainian, Okzitanian, Korsikan nahiz Ipar Euskal Herrian. Frantsesaren itzalpean bizi diren hizkuntza gutxituen eta hizkuntza horietako hiztunen egunerokoa zailtasunez bete dago. Familen bidezko transmisioa etena dago Korsikan, Jean Baptiste Paoli Canope argitaletxe sareko proiektuen kudeatzaileak Ikasek antolatutako

solasaldian adierazi zuenez: “Gure gurasoen belaunaldian hizkuntza naturala zen korsikera haientzat eta guk errazki eskuratu genuen. Gaur egun familia barruko transmisioa % 2koa da. Galera oso azkarra bizi dugu. Zailtasun handiak ditugu belaunaldi berrietan korsikar hiztun onak edukitzeko, orain arte ez garelako bideratu hizkuntza murgiltzera”. Okzitania oso eremu zabala da, estatu frantsesaren heren bat



Bigarren solasaldian erakundeetako ordezkarien txanda izan zen: Pantxika Maitia aurkezlea, Antton Kurutxarri (Euskararen Erakunde Publikoa), Jean Luc Armand eta Jeremy (Okzitaniaren Erakunde Publikoa) eta pantailan Fulup Travers (Bretoieraren Erakunde Publikoa).

baino gehiago, eta hizkuntza bizi-berritzeko erronka oso inportanteak dituzte, Herve Coture Capoce argitaletxeko arduradunaren esanetan. UNESCOren arabera, desagertzeko zorian dago okzitania: hiztunen % 2-3 galdu dituzte eta % 7 dira okzitanieraz elkarrizketa sinple bat edukitzeko gaitasuna duten hiztunak. “Egoera hori izanagatik, gehiengo okzitaniera mantentzearen edo garatzearen aldekoa da eta hamarretik zortzik politika bereziak egin behar direla dio. Eskolak oso gune inportanteak dira familia barruko transmisioa oso txikia delako”, azaldu zuen Jean Luc Armand Okzitanieraren Erakunde Publikoko lehendakariak.

Ipar Euskal Herriko argazkia Aines Dufau Ikaseko zuzendariak egin zuen: “2016ko azterketa sozio-linguistikoaren arabera, kostaldean, Lapurdin, seitik bat da euskaraz aritzeko gai eta barnealdean heren bat pasa. Eremu publikoan, karrikan, ehunekoa gutxituz doa, % 5 besterik ez da entzuten”.

Egoera soziolinguistiko zail horietan, denek azpimarratu zuten irakaskuntzak duen garrantzia, familian gertatzen ez den transmisioa eskolak berma dezakeelako. “Bretainian orotara 18.000 ikasle

ditugu 570 eskoletan sare elebidunetan. Gainerakoak frantses eredu elebarkarrean ibiltzen dira (30.000 ikasle) eta lan handia dugu sail elebarkarretik elebidunetara pasatzen”, azaldu zuen Delphine Le Bras Tes argitaletxeko arduradunak. “Korsikan korsikeraz ikasten duten ikasleen kopurua jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala”, gehitu zuen Paolik. “Ama Eskolan ikasleen % 90ak hautatzen du, kolegioan erdiak baino gehiagok uzten du eta lizeoan % 12k bakarrik hautatzen du atzerriko hizkuntza gisa. Lizeoaren erreformaren ondotik 50 ikaslek baino ez dute korsikera espezialitate gisa”. Ipar Euskal Herrian ikasleen $\frac{3}{4}$ frantsesetik bakarrik eskolatzen dira, sail elebidunetan % 19 pasa eta murgiltzean % 7. “Ama Eskolan ikasleen % 40 has ten da euskal irakaskuntzan, baina gero, Korsikan bezala, kolegioan erdiak jarraitzen du euskaraz, % 20k, eta lizeoan % 10ak. C1 mailako gaitasuna duten ikasleak biziki gutxi dira: urtean 100 bat baldin badira eder da”, Dufauren esanetan.

Ikasmaterialearen funtzioa

Hizkuntza gutxituan irakasteko materiala behar dela argi dute denek eta horretan dihardute. Baliabide

“Zailtasun handiak
ditugu belaunaldi
berrietan korsikar
hiztun onak
edukitzeko, orain arte
ez garelako bideratu
hizkuntza murgiltzera”

Jean Baptiste Paoli (Korsika)

“Eskolak oso gune
inportanteak dira
familia barruko
transmisioa oso
txikia delako”

Jean Luc Armand (Okzitania)

“Lan handia dugu
ikasleak sail
elebarkarretik
elebidunera pasatzen”

Delphine Le Bras (Bretainia)

“Guretzat
garrantzitsua da
itzulpenak murriztu
eta sorkuntzari pisu
gehiago ematea,
gogoeta pedagogikoak
sartuz eta gure ondare
naturalaren eta
kulturalaren
presentzia bermatuz”

Aines Dufau (Ipar Euskal Herria)



pedagogikoak, liburuak, fitxak, ikus-entzunezkoak, tresna interaktiboak, Interneteko edukiak, filmak, joko pedagogikoak, animazioak... “Familientzako eta hezkuntza komunitatearentzako ekoizpen digitalak ere egiten ditugu, eta pandemia garaian eskaria handitu egiten zen, gainera”, zioen Bretainiako eledunak. Azken urteetan ekoizpen digitalen kopurua igo egin dute argitaletxe guztiek, gaur egungo egoerak hala eskatuta. “Guk, gainerakook bezala, lexiko propioa garatzeari garrantzia eman diogu, terminologia bateratua erabiltzeko”, gehitu zuen Korsikako ordezkariak. “Guretzat garrantzitsua da itzulpenak murriztu eta sorkuntzari pisu gehiago ematea. Horrela, pedagogia aldetik gogoeta egin ondoren sortzen ditugu lanak eta gure ondare naturalaren eta kulturalaren presentzia bermatzen dugu. Argitaletxe handietako materialak ez du zertan hobia izan behar eta, gainera, haien mendekotasunetik aldentzea interesatzen zaigu”, Ikaseko zuzendariaren hitzetan. Okzitaniako Capoceko arduradunak azaldu zuen gazteentzako literatura bildumak egiten dituztela eta “guretzat oso tresna garrantzitsua dira, hizkuntza-ren jokamoldeak bereganatzeko oso garrantzitsuak baitira”. “Gainera, bai literaturako eta bai eskolako liburuetan, biziki inportantea da

gustuaren atxikitzea, materialak erakargarriak izatea eta kulturalaren ikuspegitik oraiko jendarteari lotuak izatea. Saiatzen gara obra interesgarriak proposatzen, betiere jokagaietatik hurbil eramanez eta ustiapen pedagogikoarekin”, erantsi zuen Dufauk.

Ikasmaterialgintzaren helburua bada hizkuntza gutxituetan dabil-tzan irakasleei laguntzea ere, eta horretarako haiekin zuzeneko hartu-emana dute argitaletxe guztiek, haien beharrak zein diren jakiteko, zein zailtasun dituzten ezagutzeko eta nola ari diren informatzeko. “Gure helburua korsikeraz irakasteko gai izango diren irakasleak sortzea da, oso gutxi baititugu”, zioen Korsikako Paolik. “Korsikan irakasleentzat irekitzen diren postuetatik erdia elebidunentzat erreserbatuak dira, baina korsikar gizarteak ez du gaitasunik korsikar hiztunak sortzeko, eta beraz, korsikar irakasleak izateko. Urtero ez ditugu 30 irakasle ekoizten eta ez da nahikoa. Irakaskuntzara bideratu nahi diren korsikar hiztunak ez dira nahikoak”. Lurralde guztietan eskaintzen dute formazioa eta horrek ere laguntzen du irakasleen prestakuntzan.

Irakasleak ez ezik, gainerako helduak ere gogoan dituzte. “Ipar Euskal Herrian, esate baterako, familia erdaldunak ailegatzen dira urtero

eta gure erantzukizuna da horiei euskara ikasteko materiala eskaintzea. Hizkuntza transmisioa familian ere landu nahi baldin badugu, beharrezkoa zaigu gurasoei bederen ikasteko materiala eskaintzea. Zeregin horretan AEKrekin elkarlanean ari gara”, zioen Dufauk.

Hizkuntza politiken norabidea

Baionako solasaldiaren bigarren zatian hizkuntza politikaz aritu ziren, zehatzago esanda, ikasmaterialgintzaren arloan zein hizkuntza politika eramaten diren aurrera. Bretoieraren Erakunde Publikoko Fulup Travesek bretoierari ikusgarritasuna emateko egiten ari diren lana azpimarratu zuen, “terminologia, lexikografia, hizkuntza ondarea eta bide seinaleak lantzera bideratu dugu gure jardunaren zati handi bat, hizkuntzaren corpusa sendotzeko eta hedatzeko”. Okzitaniaren Erakunde Publikoa sinetsita dago hizkuntza politikaren zutoinak transmisioa eta gizarteratzea direla, eta transmisioan eskolak eta helduen irakaskuntza direla gako. “Horregatik, irakasleen formazioa bultzatu nahi dugu, sail elebiduneari sartzeko aukera izan dezaten” Jean Luc Armanden hitzetan. “Horrekin batera, Capoce argitaletxea bermatzea eta lankidetzan aritzea da helburua”.

Euskararen Erakunde Publikoaren helburua “sare publikoan ama eskolan murgiltzea sustatzea da, elebidun izateko baitezpadakoa baita murgiltzea. Bigarren mailan oren parekotasuna da jomuga eta lizeoan egokitze batzuk egin behar dira ikasle askok uzten dutelako. Azterketak euskaraz egitea ere xede dugu eta hortik aurrera goi mailako ikasketak segitzen dutenek kalitate oneko ikasketak ukaitea. Beraz, formakuntzan erronka handia dugu”, adierazi zuen Antton Kurutxarri lehendakariak. “Bide horretan, helburua da Ikas zentroa laguntzea bere funtzionamenduan eta baita ikasmaterialen ekoizpenean ere”.

Helburuak finkatuta daude, norabidea markatuta dago, bitartekoak jarri eta elkarlana baliatuz xedeak betetzera iristea da erronka.



"Gaxuxaren klarion magikoa" haurren beldurrei buruzko ipuina da, 2 eta 6 urte bitartean agertzen diren beldurrei aurre egiten laguntzeko ipuina. Gaxuxak klarion magikoa erabiliko du pertsonaia beldurgarriak giltzapean sartzeko eta bere beldurrak uxatzeko. **Alvaro Beñaran** psikomotrizistak eta **Oihane Beñaran** ilustratzaileak sortutako liburua.

EKARPENAK II

EUSKARABILDUAREN 11. JARDUNALDIAK

“Enpresa pribatuei libre uzten zaie hezkuntzako eremua”

‘Digital Democratic’ programa aurkeztu dute Simona Levik, Digitalizazio Demokratikorako eta Eskubide Digitalerako Institutuaren sortzaileak, eta Arnau Monterdek, Bartzelonako Udaleko Berrikuntza Demokratikoko zuzendariak, Euskarabilduaren 11. Jardunaldietan; Bartzelonan hezkuntzaren eremuan familiek euren datuen burujabetza izan dezaten garaturiko software librea da.



Euskarabildua jardunaldiak Donostian. Simona Levik online hartu zuen parte.

AEBko epaitegi batek 18 urteko emakume bat salatu zuen “epez kanpo” abortatzeagatik, froga gisa Facebooken amarekin izandako elkarrizketa bat erabili ostean. Zuckerbergen konpainiak Jessica Burgesen eta haren alaba Celesteren datu pribatuak eman zizkion Nebraskako epaitegi bati. Antza, Jessicak 17 urte zituenean eta haurdunaldiko 23. aste

inguruan zegoelarik, abortatu egin zuen amaren laguntzarekin —Nebraskan, 20. astera arte da abortua legezkoa—. Ez da Facebookek elkarrizketa pribatuak zabaltzen dituen lehen aldia, ezta hurrik eman ere. Eta Facebook ez da, ezta ere, datuak eman eta saltzen dituen multinazional bakarra. Gisa horretako foroetan —Facebooken, Gmailen, Twitterren, Instagramen, Whatsapen

eta abarretan— dauzkagun elkarrizketak konpainien nahien arabera erabiltzeko moduan daude. Eta ez txatetan ditugun elkarrizketak soilik; ikuskatzen ditugun webguneak, sarean erakusten ditugun zaletasunak, mezu elektronikoetan partekatzen dugun informazioa, eskegitzen ditugun gure eta gure lagunen argazkiak... Datu horiek guztiak, babes neurri zehatzik hartu



ezean, konpainia multinazionalen eskura jartzen ditugu.

Euren seme-alaben datuekin konpainia multinazionalek egin zezaketen erabileragatik kezkatuta, Bartzelonako hainbat familiak Xnet institutura jo zuten 2019an. Simona Levi antzerkigile eta ekintzaileak fundatu zuen Xnet, 2008an, berrikuntza demokratikoan eta eskubide demokratikoen alorrean sakontzeko: “4 eta 9 urte bitarteko haurrak zituzten hainbat familia arduratuta etorri zitzaizkigun. Ikastetxeak familiei baimena eskatzen zieten ekintza digital guztiak Google plataformaren bidez egiteko (lainoa, Classroom, elkarlanerako dokumentuak, egutegia...). Baimena sinatzen ez bazuten, ikastetxeak ez zien bestelako aukerarik eskaintzen. Orduan ikusi genuen fenomeno hori oso zabalduta dagoela Europa mailan eta, seguraski, urrutirago ere bai, eta egoera horri buelta emateko, lanean hasi ginen”. Xnetek Europa mailako txosten bat idatzi zuen Bartzelonako familien kasutik abiatuta, *Digitalizazio demokratiko eta burujaberako Europako proposamena*.

Simona Levi Xnet Digitalizazio Demokratikorako eta Eskubide Digitalerako Institutuaren sortzaileak Euskarabilduaren 11. Jardunaldietan hartu zuen parte —online—, Arnau

Monterde Bartzelonako Udaleko Berrikuntza Demokratikoko zuzendariarekin batera —Donostian izan zen aurrez aurre—. Levirentzat, gakoa da hezkuntzak orain eta datozen urteei begira digitalizazioaren aurrean daukan erronka handiari erantzutean zer norabide hartuko den erabakitzea: “Ikastetxeek multinazionalen esku utziko dituzte milaka ikasleren datuak, edo software librea erabiliko dute, nor bere datuen jabe —beraz, burujabe— bihurtzeko?”.

Zergatik hitz egin behar da digitalizazio demokratikoari buruz?

Hezkuntzan, funtsezko eztabaida da, Leviren aburuz, eskubide digitalen ingurukoa, “gure oinarritzko eskubideetan sakontzea” dakarrelako. Abiatu aurretik, zehaztu zuen digitalizazioa “erabakiz jositako prozesu bat” dela: “Digitalizazio demokratikoari buruz hitz egiten dugunean, zehaztu nahi dugu digitalizazioa ez dela fenomeno meteorologiko bat. Gure politikariek eta erakundeek digitalizazioa gertatzen den zerbait balitz bezala jotatzen dute, begiak estali, eta bat-batean guztia digitalizatua balego bezala. Gure ikuspuntutik hori arduren utzikeria larria da, eta hainbat eskubideren urraketa dakar utzikeria horrek. Agintarien

utzikeriagatik, enpresa handiek hainbat espazio okupatu dituzte, are gehiago COVID-19aren pandemiak ekarri zuen digitalizazioaren azkartzearekin. Google, Microsoft eta antzeko konpainia multinazionalek okupatu dituzte espazio horiek. Hori

Euren seme-alaben datuekin konpainia multinazionalek egin zezaketen erabileragatik kezkatuta, Bartzelonako hainbat familiak Xnet-era jo zuten. Simona Levik fundatu zuen Xnet, berrikuntza demokratikoan eta eskubide demokratikoen alorrean sakontzeko

“Software libreak denbora gehiago darama hezkuntzan teknologia enpresa handiek baino, eta oso garatuta eta finkatuta dago. Dena hemen dago. Hori da albiste ona. Albiste txarra da, ordea, oso gutxi erabiltzen dela”

Simona Levi

da konpainia handien lana”. Konpainia multinazionalak “pribatizatu duten eremu hori”, berez, erakunde publikoen ardura litzatekeela uste du Levik; haren iritziz, erakunde publikoen lana da garai digitalean gure zerbitzu publikoak nola digitalizatu-ko diren diseinatzea. “Zer esan nahi du horrek? Ingurune digitalean ere zaindu egin behar direla oinarrizko eskubideak, hau da, eskubide digitalek bermatuta egon behar dutela, diseinuz eta lehentasunez. Gaur egun, ordea, hezkuntzako eremua libre uzten zaie enpresa pribatuei, teknologia enpresa handiek digitalizazioa doan egin dezaten”.

Eskubide digitalak bermatzeko, hainbat gako nabarmendu zituen Levik: “Lehenik, kodeak ikuskatzeko aukera eskaini behar du. Hau da, ezagutu egin behar da makineria: zerbitzu publikoak digitalizatzeko erabiltzen diren aplikazioen berri izan behar dugu, jakin egin behar dugu gure datuekin eta gure edukiekin zer egiten duten zehatz-mehatz. Eta hori soilik software librearekin egin daiteke. Bigarrenik, elkarrekiko eragingarriak izan behar dute: nik eduki bat sortzen badut, edo datu batzuk biltzen baditut, edo hornitzaile

baten aplikazioak erabiltzen baditut, hornitzaile hori alde batera uzteko aukera izan behar dut nire datuak eta edukiak galdu gabe, datu horiek eta eduki horiek nireak baitira. Elkarreragingarritasuna baldintzarik gabe berretsi behar dute erakundeek, eta horretarako, beharrezkoa da software librea. Horrek guztiak datuen burujabetza dakar, bai erakundeentzat eta estatuentzat baina baita gutako pertsona bakoitzarentzako ere”.

Leviren aburuz, erakunde publiko gehienek ez dituzte oinarrizko baldintza demokratiko horiek betetzen, esparru digitalean murgiltzen direnean, “eta hori, gure ustez, kriminala da, literalki —erantsi zuen—. Gure erakundeak sistematikoki ari dira urratzen gure eskubide digitalak”.

Nola egin liteke digitalizazio demokratikoa?

Levik ez dauka zalantzarik: “Software librearekin bakarrik egin daiteke. Albiste ona hau da: hau guztia iritsi aurretik software librea hemen zegoela. Software libreak denbora gehiago darama hezkuntzan teknologia enpresa handiek baino, eta oso garatuta eta finkatuta dago. Dena hemen dago. Hori da albiste ona. Albiste txarra da, ordea, oso gutxi erabiltzen dela, batik bat eskala handietan politikaren bezero sareen bidez bultzatzen dutena beste norabide batean doalako: kode itxiak, copyright fanatikoak, korporazio handiak...”. Software libreak ere baditu, Leviren iritzirako, berezkoak dituen arazo batzuk: “Software librea ez dago egokituta konpainia handiek ekarri duten azkartasunari erantzuteko, oso tekniko eta konplikatu da, software librearen militantea izan gabe, edozein irakasle edo fameliak, adibidez, nahieran erabiltzeko. Software librea erraz erabiltzeko modua bilatu behar da”.

Hezkuntzaren esparruan software librea arin eta erraz erabiltzeko bilaketaren emaitza da hezkuntzaren digitalizazio demokratikorako DD

Digital Democratic proiektua. “Bartzelonako familia haien eskariari jarraituz eta sentsibilizaturik zeuden irakasle batzuekin, *Digitalizazio Demokratikoaren Plana* diseinatu genuen. Ez genuen gorpila asmatu, baizik eta mahai gainean jarri genuen esparru hau erakundeen ardura dela. Konpainia handiak *dumping*a egiten ari dira: digitalizazio osoa proposatzen dute dohainik, eta berez demokratikoak izan behar luketen digitalizazio tresnak babesten ari dira”. Plan horrekin, zerbitzari burujabeak proposatu dituzte, eta, horrela, ikastetxeek eurek sarbidea izan dezaketen zerbitzariak aukeratu dituzte, behar dutena erantsi edo kentzeko aukera ematen dietenak. Google Suite edo Google Classroom-en antzera funtzionatzen duten tresnak eskaintzen dituzte. Moodle, Nextcloud, Big Blue Button, WordPress, Etherpad eta antzeko beste software batzuk batuta osatu dute DD, eta ikasleek behar dituzten dokumentu kolaboratiboak, egutegiak, txatak, posta elektronikoak eta abar eskaintzen ditu.

Hainbat erakunde publikori aurkeztu zieten DD plana, eta Bartzelonako Udala izan zen erantzun zien bakarra, Levik jakinarazi zuenez. Udalak librea, irekia eta ikuskatzeko modukoa izango den kode bat garatzeko aurrekontua jarri zuen, eta, ondoren, Bartzelonako 12 ikastetxetan baliatzen hasi ziren software hori. “Behin aski garatuta, abangoardiako prototipo bat edukiko dugu, gero Europa osoan erabili ahal izateko”, adierazi zuen Levik. Bartzelonako Udalaren atzetik beste erakunde batzuek ere interesa erakutsi dutela jakinarazi zuen ekintzaileak, hala nola Eusko Legebiltzarrak. Espainiako, Frantziako edota Danimarkako gobernuekin ere elkarriketak hasi dituzte. Azken herrialde horrek, kasurako, Google debekatu egin du hezkuntzan, eta Alemaniako bi landerrek gauza bera egin dute Microsoftekin. “Herritarren ahalegin txiki batek Europako digitalizazio demokratikorako bidea urratu du”.

Bartzelonako kasua: tresna eta kontzientzia

Software libreko hainbat erreminta biltzen dituen DD proiektua Bartzelonako hainbat ikastetxetan sustatzeko ekimenaren bultzatzailea da Arnau Monterde, Bartzelonako Udaleko Berrikuntza Demokratikoko zuzendaria. Monterdek adierazi zuenez, DD Digital Democratic proiektu pilotuan, Bartzelonako hiru ikastetxe hasi ziren probatzen duela bi urte, eta gaur egun, 12 ikastetxek parte hartzen dute ekimenean. Gainera, ikastetxeetatik harago, prestakuntza eskaintzen duten beste espazio batzuetan ere erabiltzen ari dira gaur egun, hala nola gizarte etxeetan, kultur etxeetan, musika eskoletan... “Proiektu honen bertute nagusia erregistro bakarrarekin zerbitzu ugaritara sartzeko aukera izatea da, hori izan ohi baita software librearen zailtasunetako bat”, azaldu zuen Donostian. “Googlen erregistratuta gaudenean, zerbitzu batetik bestera pasatzeko erraztasunak dauzkagu. Bada, guk ere esperientzia berdina eskaini nahi dugu,

software librearen bidez. Moodlen oinarritua dago Digital Democratic, eta esperientzia erraz eta ezaguna da hezkuntza birtualeko eremuan dabiltzanentzat; menuaz gain, gelak daude, eta eskolak eta bideokonferentziak egiteko plataformak eskaintzen ditu, besteak beste”.

Tresna bera garrantzitsua da Monterderentzat, baina, haren iritziz, tresna ezin da bereizi filosofiatik. “DD aukera pedagogikoa da; ez da ikastetxeetan zabalduko den erreminta bat soilik, baizik eta garai digitaleko erronka demokratikoen inguruko hausnarketa egiteko aukera da; zer gertatzen da gure eskubide digitalekin, gure pribatutasunarekin; nola erabiltzen ditugu teknologiak...? Gure proposamena familiekin eta guraso elkarteekin batera garatu da (400.000 familia elkartzen dituzten erakundeekin), eta prozesu horrek burujabetza teknologikoaren filosofiaz eta euren seme-alaben eskubide digitalak zaintzearen garrantziaz hausnartzera eraman ditu.

Gure ustez, gizarte zibilarekin batera hausnartu behar dugu digitalizazioa ere. Gure kasuan, familiekin, ikastetxeekin eta software librea eza-gutzen duten adituekin elkarlanean garatu behar dugu tresna”.

Hezkuntzaren esparruan ere, teknologia gudu zelai garrantzitsua da, Monterderen ustez. Haatik, ikuskera horretatik urrun dauden bi jarrera sumatzen ditu nagusiki hezkuntzaren eremuan: “Batzuk oso aldekoak izan dira, teknologiek guztia konponduko zutela pentsatu dute; eta beste joera batzuek teknologia hezkuntzatik urrutiratzeko nahia erakutsi dute. Nolanahi ere, teknologia hor dago; teknologia gelditzeko etorri da, eta, gure ustez, gudu zelai bat da, eta gu lehiatzen ez bagara, denok dakigu zer enpresa handik irabaziko duen. Gure datuak AEBn dauden enpresa handien esku uzteak eta datu horiekin zer egingo duten ez jakiteak familiak kezkatzea normala iruditzen zaigu. Eta kezka hori motor garrantzitsua izan da guretzat”.



Arnau Monterde, Bartzelonako Udaleko Berrikuntza Demokratikoko zuzendaria Euskarabilduaren jardunaldietan.

EKARPENAK III

HEZKUNTZA AKORDIOA

Nuria Mora: “Eskola publikoek eta itunduek partida arau berberekin jokatzeari lortu nahi dugu”

Une honetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hezkuntza Lege berriaren atarian egonik, EH Bilduk hezkuntza konferentzia bat antolatu zuen pasa den abenduaren 6an. Euskal hezkuntzaren erronkak izendatzeaz gain, Kataluniako hiru gonbidatu ekarri zituen, horien artean Nuria Mora Generalitateko Hezkuntza sailburuordea. Hemengoaren antzeko prozesua eginga dute eta haien irakaspenak baliagarri izan daitezke.

EH Bilduk pasa den abenduaren 6an antolatutako hezkuntza konferentzian hiru gonbidatu katalan izan ziren hango esperientziaz hitz egitera: Nuria Mora Generalitateko Hezkuntza sailburuordea, Francesc Colomé Generalitateko Hezkuntza sailburuorde ohia eta Juanjo Falcó Lleida-ko Udaleko alkatetzako aholkularia. 2006an egin zuten hezkuntza itun nazionala Katalunian, 2019an LEC Kataluniako Hezkuntza Legea eta segregazioaren aurkako ituna eta 2021ean Kataluniako Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeen hezkuntza eskaintzaren programazioaren eta ikasleen onarpen prozesuaren Dekretua. Hezkuntza sistema hobetzeko urratsak ematen ari dira eta haien erronkak, zailtasunak eta lorpenak ezagutzera ematera etorri ziren. Nuria Mora egungo sailburordeak azaldu dizkio **Hik Hasiri** egiten ari diren ibilbidearen ingurukoak.

Zein dira legearen ezarpenen topatu dituzuen oztoporik aipagarrienak, baldin eta topatu baldin badituzue?

Bata hizkuntzaren aferako esku-sartze judizialak. Hezkuntza sistema katalana murgiltze sisteman oinarritzen da eta injerentzia judizialek eskoletan tentsioa sortu dute eta hezkuntza sistema bera oztopatu dute.

Bigarren oztopoa hezkuntza inklusiboan inbertitzeko bitarteko gabezia izan da. 500 milioi eurotako injekzioa beharko genuke estatuaren aldetik eta ez gara jasotzen ari.

Oztopo bi horiekin batera zailtasun bat ere badugu. Curriculum berriak beste modu batera lan egitea ahalbidetu digu, irakaskuntza moduak aldatuz, eta irakasle batzuei kosta egiten zaie oraindik irakasle-ikasle, entzule-hartzaile eskematik ateratzeari.

Legeak planteatutako berrikuntzetako bat Kataluniako Hezkuntza

Zerbitzua izan zen. Zein helburu zuen?

Hasteko eta kokatzeko, esan dezadan Katalunian 5.461 ikastetxe ditugula; 3.835 publiko, 689 itundu eta 937 pribatu.

Kataluniako Hezkuntza Zerbitzuaren helburua hezkuntza eskaintza bakar bat egitea izan zen; eskola publikoek eta kontzertatuek, denek, herritarrentzat edo hezkuntza zonaldearentzat eskaintza bakar bat egitea. Osasun zerbitzuaren antzeko egoerara iritsi nahi dugu, non eskola batera joaten zarenean ez litzatekeen antzemango publikoa edo kontzertatua den, zerbitzu berbera eskainiko bailukete.

Hezkuntza Zerbitzu horretan parte hartzeko ikastetxeek hainbat baldintza bete behar dituzte, besteak beste: zentro gisa izena emana egotea, derrigorrezko hezkuntzako etapa bat edo bat baino gehiago eskaintzea, irakasle-ikasle ratioa betetzea



Ezkerretik eskuinera EH Bilduren hezkuntza konferentziako parte-hartzaileak: Ikoitz Arrese, Francesc Colomé, Nuria Mora, Juanjo Falcó eta Bakartxo Ruiz.

eta ez igotzea, irakasle tituludunak edukitzea, eskolako eta eskolaz kanpoko eskaintzaren berri ematea, katalanezko irakaskuntza bermatzea, curriculuma betetzea, irabazi asmorik ez izatea, segregazioaren aurkako ituna sinatzea eta Ikasleen Onarpen Dekretua onartzea. Azken finean, eskola publikoek eta itunduek, biek, partida arau berberekin jokatzeari lortu da nahi.

Zuen esperientziatik begiratuta, zer gomendatzen diezu euskal hezkuntzaren aldetan murgilduta daudenei?

Hizkuntzaren kasuan, egoera desberdina daukagu; Katalunian murgiltze eredia daukagu. Uste dut sozialki izugarritzko onura dakarrela horrek, hezkuntza sistematik ateratzen diren ikasle guztiak bi hizkuntza ofizialak ulertzen eta hitz egiten ateratzen direlako, gehi atzerriko hizkuntza bat. Eta aukera hori hezkuntzak demokratizatzen du.

Guretzat garrantzitsua izan den beste puntu bat ikastetxeen autonomiarena izan da, legeak hori bultzatzen baitu. Horretan ari gara eta uste dut garatu behar den prozesu bat dela. Badakit diskurtso bikoitza duela. Sindikatuek autonomiak desberdintasunak sortzen dituela diote, eta desberdintasunak disonantziak dakartzala. Baina errealitatean,

joko-arau berdinekin, ikastetxeen autonomiak aukera ematen du bertan lan egiten duten pertsonak hezkuntza proiektuari lotzeko, zentroan egiten denaren ardura hartzeko eta, beraz, hobetzen ahalegindu nahi izateko, helburua ikasleen arrakasta lortzea delarik.

Ikastetxeen autonomiak zuzendaritza talde sendo bat eskatzen du, zeinak hezkuntza proiektuaren markoaren barruan hurrengo lau urteetan zer proiektu eta nola garatuko diren zehazten duen. Hau da, nola antolatzen den zentroa bere hezkuntza proiektuari erantzuteko, hezkuntza proiektua aldatuz doalarik proposamen berriak sartu ahala.

Bide horretan, urrats berri bat ematea falta zaigu: ikastetxeek euren irakasleak eta hezitzaileak (gizarte hezitzaileak, gizarteratzeko teknikak...) hautatzea hezkuntza proiektuan ezarritako helburuak betetzeko.

Katalunian eskola publikoek irakasleak hautatzeko aukerarik ba al dute?

Hein batean bai. LEC legeak plantillaren erdia profilatzeko aukera ematen du eta plantillen dekretua daukagu. Baldin eta plazak hutsik baldin badaude, ikastetxe batek bere hezkuntza proiektuari erantzungo dieten profileko irakasleak eska ditzake postu horietarako. Hainbat

profil daude zehaztuta: hizkuntza-eskakizuna, artistikoa, inklusiokoa, liburutegikoa...

Plaza horien berri ohiko moduan ematen da udan, ikastetxeetako webguneetan ere horren berri ematen da, lurraldeko zerbitzuetan ere bai eta nahi duen orok eman dezake izena, funtzionarioek lehentasuna duten arren.

Sindikatuaren aldetik kritikak jaso izan ditugu, irakasleak nahierara hautatu daitezkeela diotelarik, baina profila ongi definituta baldin bada, eskolako kontseiluan onartzen da, ikuskaritzak onzat ematen du eta profila egituratuta geratzen da. Beraz, profila hezkuntza proiektuari erantzungo dion pertsonari begira dago, ez lagunari. Eta zuzendaritza aldatzen baldin bada edota plaza lortu duen pertsonak alde egiten baldin badu, helburua profilari lotutako plazak hor jarraitzea da.

Horrekin irakasle konprometitua goak lor daitezke ikastetxeen?

Horrekin eta egonkortasunarekin. Eta horrez gain, ikuskaritza sendo baten laguntzarekin eta lidergoa izango duen zuzendaritzaren kudeaketa onarekin, ikastetxeak gai izan beharko luke bere hezkuntza proiektua egiteko eta irakasleak horri lotzeko. Hori behar du ikastetxe batek. Eta irakaslea ez baldin bada lotzen, aldagetak egiteko mekanismoak behar ditugu: izan lekualdatzeak, izan zerbitzu eginkizunak, izan formazioa edo bestelakoak. Helburua irakaslea hezkuntza proiektuari lotzea da, bere gelan ikastetxeak erabaki duena gerta dadin, eta ez berak nahi duena.

“Plazak hutsik baldin badaude, ikastetxe batek bere hezkuntza proiektuari erantzungo dieten profileko irakasleak eska ditzake postu horietarako”

AHALDUNTZE ESKOLA

MENDEKOTASUNA(K)

Entzutea da prebentziorako gakoa

Mendekotasunari buruz hitz egiten dugunean, drogak etortzen zaizkigu burura maiz, baina, gaur egun, bideojokoek, sare sozialek eta apustuek ere mendekotasun arazoak sortzen dituzte. Ediren osasun kooperatibak horien prebentziorako lan egiten du Gasteizko hainbat ikastetxetan. Nerabeei informazio fidagarria eskaintzen diete, eta kontsumoak ekar ditzakeen arriskuak saihesteko tresnak eskaintzen dizkiete.

Hainbat arlo lantzen dituzte Ediren osasun kooperatiban, eta horien artean, mendekotasunen prebentziorako lantegiak egiten dituzte eskoletan. Estitxu Saracho Ediren osasun kooperatibako psikologoa da, eta baita esku-hartze komunitarioaren arloko koordinatzailea ere.

Hezkuntza zerbitzua eta droga mendekotasunaren prebentziorako programa bat du Ediren osasun kooperatibak. Nola lantzen duzue gaia gaztetxoekin?

Gaur egun mendekotasunei buruz hitz egiten dugunean, protagonistak ez dira drogak soilik. Sare sozialek, bideojokoek, apustuek... ere mendekotasun arriskua ekar dezakete. Adinaren arabera, gazteek substantzia batzuekin edo jokaera batzuekin gertutasun handiagoa izan dezakete, eta gaia horren arabera lantzen dugu. DBHko 1. mailan, tabakoaz eta alkoholaz aritzen gara batez ere. 2. mailan, alkoholaz eta kalamuaz. 3. mailan, kalamuaren gaia lantzen dugu batez ere, eta 4.


mailan, apustuak eta bideojokoak lantzen ditugu, baina, batzuetan, psikofarmakoak ere agertzen dira. Kontsumoa mendekotasun bihurtu ez dadin laguntzeko jarraibideak ematen dizkiegu, babes faktoreak zein arrisku faktoreak lantzen ditugu, eta mendekotasuna zein faktorek areagotzen duten ikusten dugu.

Prebentzioa ez dugu beldurraren bitartez egiten, ondorio kaltegarriak aipatuz. Gure helburua gazteengan kritikotasuna bultzatzea da, zer egin nahi duten erabakitzeko irizpide propioak izan ditzaten. Kontsumoaren eta mendekotasunaren funtzioa zein den ulertzea bideratzen ditugu lantegiak.

Zer-nolako informazioa helarazten diezue kritikotasun hori landu dezaten?

Talde bakoitzarekin, hiru saio egiten ditugu. Garrantzia ematen diogu konfiantza giroan aritzeari eta espazio segurua sortzeari. Mendekotasunaren kontzeptua lantzen dugu, zergatik sor daitekeen eta zertan dantz uler dezaten. Bigarren saioan,

kontsumoa nerabezaroan kokatzen dugu. Bizitzako etapa horretan dituzten erronkei buruz hitz egiteak lagundu egiten die drogaren kontsumoak zer funtzio betetzen duen ulertzen. Adibidez, gurasoekin dituzten gatazken aurrean ihesbide gisa, lagun taldeko kide sentitzeko lagungarri izango delakoan edota ikasketek eragiten duten estresari aurre egiteko kontsumitu dezakete drogaren bat. Hirugarren saioa, berriz, informatiboagoa izaten da: substantzia jakin batzuei buruz hitz egiten dugu. Haien errealitatetik eta esperientzietatik abiatzen gara, eta horretarako erabiltzen dugun metodologia oso aktiboa da. Hainbat dinamikaren bidez, euren errealitatea zein den eta zer arazo eta zailtasun dituzten ikusten dugu. Kontsumoa ez da berezko arazoa, beste arazo batzuei emandako konponbide okerra baizik. Baina ez da blokeo edo arazo horiei aurre egiteko lagungarria, eta azkenean, arazoa huraxe bihurtzen da. Askotan drogak, apustuak edo bideojokoak ihesbide moduan erabiltzen ditugu.



Ikastetxeetan droga-mendekotasunen prebentzioa lantzeko labirintoaren irudia erabiltzen dute.

Eta kontsumotik harago arazo edo zailtasun horiei aurre egiteko zer baliabide dituzten identifikatzen dugu ikasleekin batera.

Nerabeek ba al dute alternatibarik euren arazoei aurre egiteko? Kontsumorako joera horren atzean alternatiba edo baliabide falta egon liteke?

Bai. Helduok, askotan, baliogabetu egiten ditugu haiek euren kabuz sortzen dituzten baliabideak, eta baliagarriak edo egokiagoak izan litezkeen beste batzuk ere ez ditugu eskaintzen. Azken urteetan, ikusi dugu gazteek (agian pandemiaren eraginez izan daiteke) erraztasun handiagoa dutela orain laguntza eskatzeko, eta zailtasunei buruz hitz egitea normalizatuagoa dagoela; baina ez dute jakiten zer egin dezaketen eta zer baliabide dituzten. Zorionez, gaur egun, ikastetxeetan osasun mentala lantzeari garrantzia ematen ari dira, eta zailtasun horiek

partekatzeko espazioak sortzen ari dira.

Nerabeen artean oso zabalduta al dago droga mendekotasuna?

Azken ikerketek diotenez, substantzia jakin batzuen kontsumoak gora egin du azken hamar urteetan, baina mendekotasunak behera egin du. Hori seinale ona da: hainbat substantzia kontsumitzen dituzten arren, ez da mendekotasunik sortzen. Substantzia bakoitzaren erabilera funtzio jakin batekin lotzen dute nerabeek: alkoholaren kontsumoa sozializazioarekin lotzen dute, eta lotsa galtzeko erabiltzen dute. Kalamua arazoak edo ezinegon emozionalak kudeatzeko erabiltzen dute, ihesbidea izaten da. Bideojokoek ere antzeko funtzioa bete dezakete. Sare sozialekin eta bideojokoekin, erronka handia dugu. Alkoholaren kontsumoa oso normalizatuta dagoen moduan, mugikorraren erabilera edo sare sozialak ere oso

integratuak baitaude gure egunerokoan, bai nerabeen kasuan eta baita helduen kasuan ere.

Informazioa al da prebentziorako biderik egokiena?

Gazteek informazio asko dute, askotan kontrajarria, eta gehiegizkoa. Guk informazio fidagarria eskaintzen diegu eta aurretik dutena ordenatzen laguntzen diegu. Inportantea da informazio fidagarria zein den eta zein ez den bereizteko gaitasuna lantzea. Kritikotasuna lantzen saiatzen gara, irizpide propioa garatu dezaten. Erabakiak ahalik eta modurik askeenean hartzeko tresnak izan ditzaten saiatzen gara. Haiei entzutea gakoa da prebentziorako; helduok entzuteko eta laguntzeko prest gaudela sentitu behar dute, ez epaitzeko prest. Baliabideak behar dituzte, eta guk haien gaineko aurreiritziak alde batera utzi behar ditugu hazkuntza prozesu konplexu eta interesgarri horretan laguntzeko.

GALDEIDAZU

NOLA EGIN AURRE ZIBERINDARKERIARI BIKOTE NERABE ETA GAZTEEN ARTEAN?

Aurrerapen teknologiko berriek eta horiekin batera gertatzen diren aldaketa kulturek sakon aldatu dituzte gure komunikazio eta interakzio moduak. Izan ere, azterlan batzuen arabera, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, Interneten erabilera da nagusi (gizonen % 99,7 eta emakumeen % 99,6). Aurrerapen teknologiko horiek dakartzaten onurak ukaezinak badira ere, jazarpenarako, kontrolerako eta abusurako bide berriak agertzea erraztu dute, eta bide eman dute gazteek eta nerabeek intrusiorako eta kontrolerako jokabideak izan ditzaten, adibidez bikotearen testuinguruan. Komunikabide digitalek aukera ematen dute gaur egun bikotekidea non dagoen jakiteko eta haren mugimendu eta jarduera guztiak kontrolatzeko.

Sare sozialen eta mugikorraren bidezko jazarpenaren fenomeno hori gero eta maizago gertatzen da kolektibo horretan, eta oso ondorio larriak ditu, hala nola autoestimua baxua, arazo psikologikoak, ansietatea eta depresioa. Gainera, eragina du haien prestakuntza psikikoan eta kognitiboan, etorkizuneko gizarte harremanak ezartzean eta garapen afektibo-sozial egoikian.

Teknologia berriak gune ezin hobe bihurtu dira eraso modu berriak agertzeko. Bestalde, kultura aldaketek hainbat aldaketa eragin



**NAIARA OZAMIZ,
JOANA JAUREGIZAR,
IRATXE REDONDO,
MARIA DOSIL,
NURIA GALENDE,
PRISCILA COMINO
ETA MANUEL
MACHIMBARRENA
PSIDES ikertaldeko
ikerlariak**

dituzte balio sistemetan, idealetan eta gizabanakoek duten errealitatea ulertzeko eta esperimentatzeko moduetan. Ildo horretan, egiaztatu da indarkeria tasak, modu guztietan, gora egiten ari direla gazteen artean (eta ez soilik nahasmendu psikologikoak dituztenen artean), egoera guztietan normaltzeko joera baitute, bikotearen testuinguruan barne.

Agertoki berri hori erronka garrantzitsua da psikologiaren eta hezkuntzaren arloko ikerketarako, zaila baita gai horiei erantzutea. Beharrezkoa da errealitate berrietara egokitzea, etorkizun hurbilean prebentzioko eta esku hartzeko politikak bideratzea ahalbidetuko duten ondorioak ateratzeko. Arazo horretan prebentzioz esku hartzeko beharra dago, eta agerikoa dirudi, halaber, prebentzio horrek helduaroaren aurretik iritsi behar duela.

Zenbait kontzeptu garrantzitsu

- **Zer da bikote barneko indarkeria?**

Elkarrekin bizi ez diren eta legezko loturarik ez duten nerabe eta gazteen arteko bikote barneko indarkeriaz ari gara, kasu honetan.

Prebalentziak gora egiten ari dira, eta zenbait ikerketak erakutsi duenez, gazteen artean, mutilen %7,5ek onartzen du bikotekideari bultzatzea egiten diola, edo noizbait jo duela. Nesken % 81ek pairatu du

indarkeria psikologikoa, eta nesken % 17,9 sexu harremanak izatera behartu dituzte noizbait.

• Zer da kontrol indarkeria?

Bikotekideari zuzendutako erasoa, menderatzeko eta bikotekidearen gaineko kontrol handiagoa izateko. 16 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 38,3k pairatzen du edo pairatu du, eta gazteen % 33k uste du saihestezina edo onargarria dela. Interneten eta sare sozialen gorakadari esker, gauzatzeko modu berriak agertu dira.

• Zer da bikote barruko ziberindarkeria?

Sare sozialen eta mugikorraren bidez bikoteko beste kidea kontrolatzea, kalte egitea edo helburu hori duten jokabideak errepikatzea.

PSIDES taldea

Aurreko guztia kontuan hartuta, Bilboko Hezkuntza Fakultatean PSIDES ikertaldea sortu da, eta talde horren helburua teknologia berriak gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak aztertzea da. Bereiziki, bikote gazteen testuinguruan sareen bidezko indarkeriazko portaeran sakontzea eta horri lotutako faktore pertsonalak, familiakoak eta sozialak identifikatzea du helburu. Iker-talde horretan, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako campusetako hainbat psikologo eta gizarte hezitzailek parte hartzen dute. Unibertsitateko gazteen arteko bikote barruko ziberabusua aztertu du ikertaldeak, eta gaur egun, prebentzioko esku-hartzea egiten ari da Bigarren Hezkuntzaren eremuan, gazteei estrategiak ezartzen laguntzeko.

PSIDES taldeak egindako ikerketak

PSIDES taldeak unibertsitateko 133 ikaslerekin egindako ikerketak honako datu hauek aztertu zituen:

Noizbait bikotekidea izan duten ikasleek honako jokabide hauek izan dituzte bikotekidearekin:

- Bikotekidea jeloskor jartzeko zerbait egin zuten (% 42; k = 56)
- Bikotekideak iraganean egindako zerbait azaleratu zuten

(% 28,6; k = 38)

- Objektu bat jaurti zioten bikotekideari (% 10,6; k = 14)
- Zerbait esan zion haserrarazteko (% 46,6; k = 62)
- Ahots ozenez edota iraingarritz hitz egin zion (% 54,1; k = 72)
- Mespretxuzko esaldiekin iraindu zuen (% 10,6; k = 14)
- Ostikada bat eman, jo edo ukabilkada bat eman zion (% 2,3; k = 3)
- Zaplaztekoa eman zion edo iletik tira egin zion (% 3; k = 4)
- Bultzatu edo astindu egin zuen (% 3; k = 4)
- Beste pertsona batekin ligatzea edo maite jolasetan ibiltzea leporatu zion (% 27,8; k = 37)

Eta, noizbait, bikotekideek hone-lakoren bat egin diete galdeketa-erantzun dioten ikasleei:

- Lagun taldetik aldentzen saiatu zen (% 11,3; k = 15)
- Jeloskor jartzeko zerbait egin zuen (% 36,9; k = 49)
- Berak iraganean egindako zerbait azaleratu zuen (% 21,9; k = 29)
- Objektu bat bota zion burura (% 3; k = 4)
- Zerbait esan zion haserrarazteko (% 42,9; k = 57)
- Ahots ozenez edota iraingarritz hitz egin zion (% 46,3; k = 62)
- Mespretxuzko esaldiekin iraindu zuen (% 8,3; k = 11)
- Barregarri utzi zuen edo barre egin zion besteen aurrean (% 8,3; k = 11)
- Atzetik etorri zen norekin eta non zegoen jakiteko (% 4,6; k = 6)
- Beste pertsona batekin ligatzea edo mate jolasetan ibiltzea leporatu zion (% 30,1; k = 40)
- Uzteko mehatxua egin zion (% 17,3; k = 23)

Ziberindarkerian gehiago sakontzen

Zer faktore pertsonal daude indarkeria mota horrekin lotuta?

Ziberindarkeria jasateko edo eragiteko probabilitate gehiago dituzte

Komunikabide digitalek aukera ematen dute gaur egun bikotekidea non dagoen jakiteko eta haren mugimendu eta jarduera guztiak kontrolatzeko.

honako aldagai pertsonal hauek dituzten pertsonak:

- Autoestimua maila. Balorazio pertsonal txikiagoa eginez gero, bikotekideak gutxiago errespetatuko du.
- Etsaitasun maila. Aldagai honi dagokionez, handia da bai biktimgan eta bai erasotzaileengan ere.
- Mendekotasun emozionala. Esklusibotasunaren beharra daukate, eta bakarrik egoteko beldurra ere bai.
- Enpatia. Enpatia dagokionez, baxua litzateke. Enpatiaz ari garenean, bestearen lekuan jartzea dela ulertzen dugu, haren emozioak ulertzea, besteei laguntza eta babesa eta ulermena eskaintzea.
- Testuinguruko aldagaiak. Sexismoan, eragina du maitasun erromantikoaren mitoak ere: maitasun erromantikoaren pertzepzioa sufrimendu gisa, jeloskortasuna haren zeinu gisa hartzea, zoriontsu izateko maitasun erromantikoa bizi beharra, kideko arima benetako maitasun bakar gisa ikustea.

PSIDES taldeak ezinbestekoa ikusten du CDA-STOP eta horrelako programak eskoletan ezartzea, bikote barruko ziberindarkeria ekiditeko eta prebenitzeko.

PSIDES taldea ezartzen ari den programa: CDA-STOPS

Gaur egun, PSIDES taldeak CDA-STOP programa hainbat ikastetxetan inplementatu du, DBHko 3. mailan zehazki. Hain zuzen ere, Arrigorriaga, Abusu eta Berri Otxoako DBHko 2. eta 3. mailako ikasleek parte hartu dute. Adin horretako ikasleak nerabeak dira, eta ikerketek erakusten duten moduan, prebentziorako adin ona da nerabetasuna.

Programa horrek hiru modulu ditu. Lehen moduluan, trebetasun sozialak jorratzen dira, eta autoestimua, haserrearen kontrola eta erregulazio emozionala lantzen dira.

Bigarren moduluan, bikote harremanak aztertzen dira, eta generoaren estereotipoak, maitasunaren mitoak eta biolentzia motak lantzen dira.

Amaitzeko, hirugarren moduluan, bikote barruko ziberindarkeria da aztergaia, eta teknologia berrien arriskuak, bikote barruko ziberindarkeria eta indarkeria hori geldiarazteko moduak lantzen dira.

Metodologia aktiboen bitartez ezarri da programa, eta adin horretarako material sorta egokia sortu du PSIDES taldeak.

Programaren eraginkortasuna neurtzeko, hainbat tresna erabili dira programa ezarri aurretik eta ondoren. Bestalde, kontrol talde bat ere osatu da, horrekiko desberdintasunak aztertzeko.

Emaitzak

Programaren emaitzei dagokienez, laster publikatuko dira aldizkari zientifikoetan, baina hasieran aztertutako emaitzak positiboak direla esan dezakegu. Ikasleek gustura hartu dute parte saioetan, ebaluazioen arabera. Gainera, hobekuntzak izan dira ikasleen artean, bikote barruko ziberindakeriaz kontzientziatzeari dagokionez, besteak beste.

Esan bezala, laster publikatuko dira emaitzak, eta baita euskarazko eta gaztelaniazko liburua ere, programa hau beste edozein eskolatan inplementatzeko.

PSIDES taldeak ezinbestekoa ikusten du CDA-STOP eta horrelako programak eskoletan ezartzea, bikote barruko ziberindarkeria ekiditeko eta prebenitzeko. Hots, beharrezkoa da eraginkortasuna duen eta zientifikoki probatuta dagoen programa bat ezartzea, gaur egun bizi ditugun teknologia garaietan.

Erreferentziak

- BULLY, P., JAUREGUIZAR, J., BERNARAS, E. eta REDONDO, I. (2019). "Relationship between Parental Socialization, Emotional

Symptoms, and Academic Performance during Adolescence: The Influence of Parents' and Teenagers' Gender", *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 16: 2231. Doi: 10.3390/ijerph16122231

- DE LOS REYES, V., JAUREGUIZAR, J. eta REDONDO, I. (2022). "La ciberviolencia en parejas jóvenes y factores predictores". *Behavioral Psychology/Psicología Conductual* 30(2), 391-410.

- DOSIL-SANTAMARIA, M., JAUREGUIZAR, J., BERNARAS, E. eta SBICIGO, J. B. (2020). Teen Dating Violence, Sexism, and Resilience: A Multivariate Analysis. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 17(8): 2652. <https://doi.org/10.3390/ijerph17082652>

- GALENDE, N., OZAMIZ, N., JAUREGUIZAR, J. eta REDONDO, I. (2020). Cyber dating violence prevention programs in universal populations: A Systematic Review. *Psychology Research and Behavior Management*, 13: 1089-1099. <https://doi.org/10.2147/PRBM.S275414>



ARGITALPENAK



KUKUAREN KANTUA

Idoia Garzes - Belatz

ELKAR

Amak ez zuen Jaxintori buruz iritzi onik: “Gure artera habia egitera etorritako hezurbeltz trenak ekarritakoa. A ze pajarua!”. Nik ez nuen ezer ulertzen, eta orain, Jaxinto hil berri denean, hark txoriez erakutsitakoak gogoan, badakit bihotza habia dagoen tokian dagoela eta kukuaren portaera bizilegea baino ez dela.



KIRUN-KARUN PEK

Jon Suarez Barrutia / Malen Amenabar
Larrañaga - Mariñe Arceo Astigarraga

TXALAPARTA

Aho korapiloek, herri kanteak, zotz egiteko formulek eta hitz jokoek ahozko literaturaren errepertorioa osatzen dute. Liburu honek horien oihartzuna dakarten 84 testu labur biltzen ditu, haiku itxurakoak, ilustrazio goxoz eta iradokitzailez jantziak, jolasa beste helbururik ez dutenak.



AMAIUR

Amaia Elizagoien - Begoña Durruty

AMAIURKO GAZTELU ELKARTEA / BERRIA

Iraganera bidaia egiten du liburuak eta herritarrez hitz egiten du herriaz baino gehiago. Aspaldiko gertakizunak jasotzen ditu: gerra gertutik ezagutu zutenen bizimodua, egun batetik bestera bizitza aldatu zitzaienena... Iraganak iraun dezan, orainak hori ezagutu eta oroitu behar baitu.



TANTAK ALDIZKARIA

Hainbaten artean

EHU

Sei artikulu bildu dituzte Tantak aldizkariaren 34. alean. Horien artean “*Bullying*-a Lehen Hezkuntzan: fenomenoaren nondik norakoak, prebentzioa eta probentzioa” edota “Ikasgelan elkarrekintza didaktiko emankorrak diseinatzeko tresna baten sorkuntza” izenekoak.



TXIMELETAK ETA GOZOKIAK

Nahikari Gabilondo - Maitane Bautista

IBAIZABAL

Kimu hipopotamoak nahiago du tximeleten atzetik korrika ibili lagunekin uretara sartu baino. Mattin, berriz, barraskiloen atzetik ibiltzen da eta izugarri maite du aitona ematen dizkion gozokiak jatea. Kendu bilgarria gozokiari eta utzi tximeletei hegan egiten. 8 urtetik aurrerakoentzat.



ARTISTAK GARA GU

María José Floriano - Federico Delicado

KALANDRAKA - PAMIELA

Madrilgo Cañada Realen kokatu du idazleak kontakizuna. Gune marjinal horretako errealtatea kontatzen du bertan bizi diren umeen bizipenen bitartez. Umeek duten apurra irudimena lantzeko erabiltzen dute. Biziraupenaren eta legalitatearen arteko tentsioa deskribatzen du liburuak.

PROPOSAMENA

‘Kokoak.eus’

Irudimena pizteko, euskarazko joko interaktiboa

Eider Eibarrek kokoak.eus webgunean euskaraz jolasteko, eskulanak egiteko eta margotzeko proposamenak bildu ditu. Euskara, hainbat eduki nahiz informatikako hastapenak lantzeko baliagarria den arren, webgunearen helburu nagusia jolasa da.

kasten jarraitzeko asmoarekin, neuk jolasteko eta ikasteko” abiatu zuen Eider Eibar ilustratzaile ezagunak *kokoak.eus* webgunea. “Enkarguetatik abiatuta egiten nuen lan nagusiki eta eskuak zikintzeko gogoia neukan, eskulanetara bueltatzekoa eta gauza berriak probatzekoa”. Horrela sortu zituen Kokoak eta Mae, Io eta Ur pertsonaiak, eta ondoren Harrobia Ikastolen Elkarteko lanbide heziketako lantaldeak marrazki horietatik abiatuta, haur txikientzako animazio jokoak egitea proposatu zion. Jolasaren bidez, marrazketa eta euskara sustatzen dituen joko interaktiboa da emaitza, haur txikiei zuzendua.

Kokoak.eus Eider Eibarren “jolas patioa bezala” da, bere trukuak erakusten ditu webgunean ilustratzaileak. Irudimena, marrazketa, euskara eta jolasa uztartzen ditu webguneak. “Mae, Io eta Ur



izeneko haurrak dira egitasmoaren aurkezle eta gidari —azaldu du Eibarrek—. Beraien laguntzaz Kokoak izeneko zazpi izaki txiki eta bizi ezagutu ahal izango ditugu. Kokoek ez dute hizkuntza ulergarri batean hitz egiten eta horiei euska-

ra irakastea izango da pertsonaien helburu nagusia, elkarrekin komunikatzeko. Horretarako, beraien irudimena, margoak eta sorkuntza xelebreak baliatuko dituzte, gu beraien laguntzaile bihurtuko garelarik”. Era horretan, webguneak



Eider Eibar ilustratzailearen proiektua da www.kokoak.eus webgunea.

hainbat atal biltzen ditu: eskulanak egiteko proposamenak (Kokoen pertsonailetatik abiatuta), animazio-bideoak, margotzeko Kokoen marrazkiak eta bi webjoko: Kokojokoa eta Maeiour joko berria. Maeiour webjokoan hainbat minijokoren bidez, hitzak osatuz, irudiak margotuz edota puzzleak eginez, erronkak gainditu beharko dituzte haurrek. Hamabost jokotan, irudimena pizteaz gain, hainbat gai euskaraz lantzeko aukera proposatzen du Eibarrek —Elhuyarreko Ana Galarragarekin prestaturikoak—, hala nola, uraren zikloa, metamorfosia, gaua, ilargiaren sorrera, estralurtarrak, koloreak...


Webjokoa, ikastetxean

Ikastetxean hainbat erabilera izan ditzake webguneak. Maeiour eta Kokojokoa webjokoak baliatuz, informatikako lehen urratsak egin ditzakete haurrek eta ordenagailuko sagua erabiltzen ikasi dezakete, Eibarrek azaldu duenez. Barruko jokoetan hainbat jokaera baliatu dituzte garatzaileek horretarako: mugitu, klikatu, margotu, ezabatu, puzzlea osatu, hitza osatu, elementuak eraman, sorpresa ezkutuak aurkitu...". Euskara lantzea ere helburu du webguneak: "Euskaraz-

ko hitzak era grafikoan, marrazki bidez, osatuak agertzen dira, eder eta erakargarri, haurren arreta deitzen duten elementuetan islatuak (planetak, dinosauroak, estralurtarrak, erleak, itsasoko animaliak...). Pertsonaiek zuzenean haurrei hitz egiten diete, beraien laguntza eskatuz eta Kokoen unibertsoko partaide bilakaraziz". Hainbat eduki lantzen direnez jokoaren bidez, Eibarrek irakasgai bateko gaiteraren hasierako baliabide gisa proposatzen ditu jokoak, "baliabide aproposa izan daiteke, denon artean webjoko honetako gai apropos batekin jokatu eta abiatu behar dugun gaiari buruzko oinarritzko kontzeptuak aurrez lantzeko".

Bestelako gaitasunak lantzeko ere balio du webguneak: Marra-marra eta Kokotxokoa ataletan, esate baterako, marrazkiak eta eskulanak osatzeko baliabideak eskaintzen dira. Kokoak eta beste hainbat izaki dira eskulan horietako protagonista: Mae, Io, Ur, Lamia, Tartalo, Olentzero, Galtzagorriak, Mari, Euskal Herriko moztarrok, naturako elementuak, zenbakiak, animalia xebleak...

Joko interaktibo honek euskarazkoa izateaz gain, badu beste ezaugarri berezi bat, oso arinak dira eta



'Kokoak.eus'

Egileak:

Eider Eibar ilustrazioez arduratu da, baina berarekin izan dira Iskander Sagarminaga, Josu Cobelo, Ana Galarraga, Zuri Alvarez eta Mikel Iraurgi Maeiour garatzeko.

Nori zuzendua:

3-10 urte bitarteko haurrei.

Atalak:

- Maeiour webjokoa.
- Kokojokoa webjokoa.
- Kokotxokoa: Kokoak ezagutzeko eskularen atala.
- Marra-marra marrazki bilduma.
- Irudikosk bideo-bilduma.

ez dauka inor "engantxatzeko" asmorik: "Gure helburua haurrek apur bat jolastu ostean pantaila itzali eta arkatzarekin marraztera gonbidatzea da; edo gai bat landu eta ondoren benetako mundura pasatzea". Era berean, *kokoak.eus* webgunean biltzen diren egitasmoko sorkuntza guztiak doan eta inolako daturik bildu gabe jokatzeko eta materiala jaisteko aukera dago.

ATZEKO ATETIK



IRAGANA SUFRITZEN

SAMUEL RODRIGUEZ ETXEBERRIA
GASTEIZKO ARMENTIA IKASTOLAKO
BATXILERGOKO 1. MAILAKO IKASLEA

Orain, nire ikasketa ibilbidea bukatzen hasi dela dirudiela, atzera begiratu eta jabetzen naiz ez dela batere txarto egon. Nahiz eta behin baino gehiagotan negarrez altxatu naizen goizetan, ikastolara joan nahi ez izateagatik, konturatu gabe egunak, asteak, urteak igaro dira eta geroz eta zoriontsuago izan naiz. Eta ez egunak igaro ahala gutxiago gertzen zaidalako bukatzeko, baizik eta pertsonalki hazten joan naizela ohartzen naizelako.

Nik nire eskolako ibilbidetik zerbait errepikatu beharko banu, hasiera izango litzateke. Hau da, hasieratik hasiko nintzateke igarotako esperientzia guztiak bizitzen, onak zein ez hain onak izan diren horiek; izan ere, horiek izan dira, dudarik gabe, gaur naizena izatera eramanez. Txikitako toles-

gabetasunaz jota egindako akatsak zein ikaskideekin egindako barreak eta algarak, iraganeko lagunak edo orain lagun bilakatu direnak... Batez ere, ez direlako soilik ikasgelan bakoitza bere mahaian formal eta txintxo eserita igarotako orduak, horiei gehitu behar zaizkielako normalean disfrutatzearen aldetik probetxuzkoagoak diren jolas-orduak edo gehienbat txikitan, eskolak bukatutakoan lagunekin patioan edo parkean meriendatu bitartean bizitako abenturak.

Ikasleok gutxi gorabehera, egunaren herena pasatzen dugu ikastolan. Horrek esan nahi du astean 30 orduz gabiltzala klasean eta urtean 900 ordu inguruan, nahiz eta hezkuntza mailaren arabera zifra horiek aldakorrak diren. Horrekin esan nahi dudana da gure haurtzaroko zati oso handia pasatzen dugu-

la eskolan. Horregatik, denbora soberan dago denetarik egiteko; izan ere, ohikoa den moduan, zenbat eta denbora luzeagoan egon toki batean edo pertsona talde konkretu batekin, orduan eta esperientzia gehiago izango duzu eta jendea gehiago eta hobeto ezagutuko duzu.

Ezin dut ukatu heldu izateari hainbat alde positibo ikusten dizkiodala, baina aukera izango banu nire ikasketa ibilbidea hasieratik errepikatzeko, dudarik gabe bi urte nituenean ikastolara lehen aldiz orgatxoan sartu nintzen egun horretara itzuliko nintzateke.

Azken batean, antzara-jolasean arituko bagina moduan, garezurra duen gelaxkan erori eta hasierakora zuzenean pieza mugitzea gustatuko litzaidake, helmugara berriz gainerako gelaxka guztietatik pasatuz heltzen saiatzeko.

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA

Hazi Hezi

Eskuratu
urtean 4 ale
20 eurotan

OSPATZEKO GARAIA DA!

10 urte

www.hikhasi.eus

hik hasi
LIBURUAK

LIBURU
BERRIA



Biografia bat baino gehiago

***Hezkuntzari, herrigintzari eta euskalgintzari
eskainitako bizitza, guztiontzat eredu.***



EUSKAL PEDAGOGOIA LOKATZETAN

Joxe Mari Auzmendi, HIK Hasiren arima, A-tik Z-ra

www.hikhasi.eus